eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Doktorego-tesia

Development of new analytical tools for verifying the geographical origin of farmed Mediterranean mussels (*Mytilus galloprovincialis*)

Ane del Rio Lavín

2023

Zuzendariak:

Miguel Ángel Pardo

Elisa Jiménez

Doktorego-tesia

Development of new analytical tools for verifying the geographical origin of farmed Mediterranean mussels (*Mytilus galloprovincialis*)

Autorea

Ane del Rio Lavín

Zuzendariak

Miguel Ángel Pardo

Elisa Jiménez

Saila

Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia

Doktorego programa

Itsas Baliabideak eta Ingurugiroa

2023ko Urtarrila

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

AZTI

MEMBER OF BASQUE RESEARCH & TECHNOLOGY ALLIANCE

The research carried out in this Philosophiae Doctor thesis has been developed in AZTI (Derio, Spain) and it has been financed by SEA-TRACES (EAPA_87/2016) INTERREG Atlantic Area EU project, by the ORIME FEMP Project (00001-1NA2018-33) from the Department of Aquaculture and Fisheries of the Basque Government and by the SEAFOOD-ID Project (PID2020-118012RB-C22) which is funded by MCIN/AEI/10.13039/501100011033 and the European Union. Ane del Rio Lavín was funded by a Doctoral Fellowship ("Ayudas nuevas para el Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador no Doctor") from the Education Department of the Basque Government.

Doktorego-tesi hau AZTIn (Derion) burutu da. Lanak Europako SEA-TRACES (EAPA_87/2016) INTERREG proiektuaren, Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Akuikultura Saileko ORIME FEMP (00001-1NA2018-33) proiektuaren, eta Espainiako Gobernuak (MCIN/AEI/10.13039/501100011033) eta Europar batasunak finatzatutako SEAFOOD-ID (PID2020-118012RB-C22) proiektuaren diru-laguntzak jaso ditu. Ane del Rio Lavín Eusko Jaurlaritzaren ikertzaile ez-doktoreen prestakuntzarako doktoratu aurreko laguntzaren onuraduna izan da.

Recommended citation:
Del Rio-Lavín, A. (2023) Development of new analytical tools for verifying the geographical origin of farmed Mediterranean mussels (*Mytilus galloprovincialis*). PhD Thesis. Department of Zoology and Animal Cell Biology, University of the Basque Country.

Cover design was performed using Canva (www.canva.com). Illustrations and images that open some of the sections were also taken from this source.

Etxekoei

"Above all, don't fear difficult moments.
The best comes from them."

Rita Levi-Montalcini

AURKIBIDEA - CONTENTS

LABURDUREN ZERRENDA - LIST OF ACRONYMS

δ13C	Carbon stable isotope ratio / Karbono isotopo egonkorren ratioa
δ15N	Nitrogen stable isotope ratio / Nitrogeno isotopo egonkorren ratioa
AFLP	Amplified Fragment Length Polymorphisms / Anplifikatutako-zatien luzerako polimorfismoak
AGES	Ría de Arousa location (Galicia, Spain) / Arousako itsasadarra kokalekua (Galizia, Espainia)
Al	Aluminum / Aluminio
ANOVA	Analysis of variance / Bariantza-analisia
AOOF	Almeria-Oran Oceanographic Front / Almeria-Oran Fronte Ozeanografikoa
As	Arsenic / Artseniko
ASC	Aquaculture Stewardship Council
ATL	Atlantic area / Eremu atlantikoa
B	Boron / Boro
Ba	Barium /Bario
bp	Base pair / Base-pare
C	Carbon / Karbono
Cd	Cadmium / Kadmio
Ce	Cerium / Zerio
CI	Confidence Interval / Konfiantza-tartea
Co	Cobalt / Kobalto
CO_2	Carbon dioxide / Karbono dioxido
COCL	Coliumo location (Biobío, Chile) / Coliumo kokalekua (Biobío, Txile)
Cr	Chromium / Kromo
Cu	Copper / Kobre
DEES	Delta del Ebro location (Catalonia, Spain) / Ebroko Delta kokalekua (Katalunia, Espainia)
DFA	Discriminant Function Analysis / Bereizketa-funtzioaren analisia
DG	Digestive gland / Digestio-guruina
DGGE	Denaturing Gradient Gel Electrophoresis / Gradiente desnaturalizatzaile gel elektroforesia
DNA	Deoxyribonucleic Acid / Azido Desoxirribonukleiko
dNTPs	Deoxynucleotide triphosphates / Desoxinukleotido-trifosfatoak
EU / EB	European Union / Europar Batasuna
Fe	Iron / Burdina
GEIT	Goro location (Emilia-Romagna, Italy) / Goro kokalekua (Emilia-Romagna, Italia)

H_2O_2	Hydrogen peroxide / Hidrogeno peroxido
He	Helium / Helio
HNO_3	Nitric acid / Azido nitriko
HRM	High Resolution Melting / Bereizmen handiko urtzea
IAEA	International Atomic Energy Agency / Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia
ICPMS	Inductively Coupled Plasma Mass Spectrometry / Induktiboki akoplatutako plasma iturridun masa-espektrometroa
LBFR	Loquemeau location (Brittany, France) / Loquemeau kokalekua (Bretainia, Frantzia)
LBTN	Bizerte lagoon location (Bizerte, Tunisia) / Bizertako urmaela kokalekua (Bizerta, Tunisia)
Li	Lithium / Litio
MAF	Minimum Allele Frequency / Alelo txikienaren frekuentzia
MDS	Multidimensional Scaling / Mailaketa multidimentsionala
MED	Mediterranean area / Mediterraneoko eremua
MEES	Mendexa location (Basque Country, Spain) / Mendexa kokalekua (Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia)
Mg	Magnesium / Magnesio
$MgCl_2$	Magnesium chloride / Magnesio kloruro
Mn	Manganese / Manganeso
MSC	Marine Stewardship Council
MUES	Mutriku location (Basque Country, Spain) / Mutriku kokalekua (Euskal Autonomia Erkidegoa, Espainia)
N	Nitrogen / Nitrogeno
NCBI	National Center for Biotechnology Information/ Bioteknologiaren Informaziorako Zentro Nazionala
NGS	Next-Generation Sequencing / Sekuentziazio masiboa
Ni	Nickel / Nikel
NMDS	Non-Metric Multidimensional Scaling / Mailaketa Multidimentsional ez-metrikoa
NOx	Nitrogen oxides / Nitrogeno-oxidoak
OTU	Operational Taxonomical Unit
Pb	Lead / Berun
PBPT	Porto da Baleeira location (Algarve, Portugal) / Porto da Baleeira kokalekua (Algarve, Portugal)
PCA	Principal Component Analysis / Osagai nagusien bidezko analisia
PCR	Polymerase Chain Reaction / Polimerasaren kate-erreakzioa
PDO	Protected Designation of Origin / Jatorri-deitura babestua
PERMANOVA	Permutational Multivariate Analysis of Variance / Bariantzaren permutazio-bidezko aldagai anitzeko analisia

PGI	Protected Geographical Indication / Adierazpen geografiko babestua
qPCR	Real-time Polymerase Chain Reaction / Denbora errealeko kate-erreakzioa
RAD-seq	Restriction Site-Associated DNA Sequencing / Murriztegunerari loturiko DNAren sekuentziazioa
RF	Random Forest
RFLP	Restriction Fragment Length Polymorphism / Murriztapen-zatien luzerako polimorfismoa
rRNA	Ribosomal Ribonucleic Acid / Azido Erribonukleiko erribosomiko
SD	Standard Deviation / Desbideratze estandarra
Se	Selenium / Selenioa
SEP	South-eastern Pacific area / Ozeano Bareko hego-ekialdeko eremua
SGES	Ría de Betanzos-Sada location (Galicia, Spain) / Betanzos-Sada-ko itsasadarra (Galizia, Espainia)
SIRA	Stable Isotope Ratio Analysis / Isotopo egonkorren analisia
SNP	Single Nucleotide Polymorphisms / Nukleotido bakarreko polimorfismoak
TBCL	Caleta Tumbes location (Biobío, Chile) / Caleta Tumbes kokalekua (Biobío, Txile)
TEF	Trace Element Fingerprinting / Aztarna-elementuen analisia
THL	Training, Holdout & Leave-One-Out
Ti	Titanium / Titanio
Tl	Thallium / Talio
T_m	Melting Temperature / Urtze-tenperatura
V	Vanadium / Banadio
Y	Yttrium / Itrio
Zn	Zinc / Zink

EKOIZPEN ZIENTIFIKOA - SCIENTIFIC PRODUCTION

Argitalpenak - Publications

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., and Pardo, M. A. (2021). SYBR-Green real-time PCR assay with melting curve analysis for the rapid identification of *Mytilus* species in food samples. *Food Control*, 130: 108257. https://doi.org/10.1016/j.foodcont.2021.108257

del Rio-Lavín, A., Díaz-Arce, N., Larraín, M. A., Araneda, C., Rodríguez-Ezpeleta, N., Jiménez, E., and Pardo, M. A. (2022). Population structure and geographic origin assignment of *Mytilus galloprovincialis* mussels using SNPs. *Aquaculture*, 550. https://doi.org/10.1016/j.aquaculture.2021.737836

del Rio-Lavín, A., Weber, J., Molkentin, J., Jiménez, E., Artetxe-Arrate, I., and Pardo, M. A. (2022). Stable isotope and trace element analysis for tracing the geographical origin of the Mediterranean mussel (*Mytilus galloprovincialis*) in food authentication. *Food Control*, 139. https://doi.org/10.1016/j.foodcont.2022.109069

Kongresuak - Conferences

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., Pardo, M.A. (2019). Novel and rapid method for the identification of European mussel species based on real time PCR melting curve analysis. Aquaculture Europe 2019, Berlin (Germany), 7-10th October 2019. [Poster]

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., Pardo, M.A. (2019). New molecular tool for tracing geographical origin of farmed mussels. 49th WEFTA Conference, Faroe Islands (Kingdom of Denmark), 14-18th October 2019. [Oral communication]

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., Pardo, M.A. (2020). Development of new molecular tools for tracing the geographical origin of farmed mussels (*Mytilus galloprovincialis*). International Postgraduate Course Research in Marine Environment & Resources RiMER-2020, Donostia-San Sebastián (Spain), 3-7th February 2020. [Oral communication]

del Rio-Lavín, A., Weber, J., Molkentin, J., Jiménez, E, and Pardo, M. A. (2021). Tracing the geographical origin of the Mediterranean mussel (*Mytilus galloprovincialis*) in food authentication using stable isotope and trace element analysis. Aquaculture Europe 2020, Online, 12-15th April 2021. [Oral communication]

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., Muñoz-Colmenero M., Velasco A., Sotelo C.G., Lee, R-S, Longa, M.A., Larraín, M.A., Araneda, C., Pardo, M.A. (2021). Next generation sequencing and trace element fingerprinting approaches for tracing provenance of mussels. World Fisheries Congress 2021, Online-Adelaide (Australia), 20-24th September 2021. [Oral communication]

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., Pardo, M.A. (2021). Geographic origin assignment of *Mytilus galloprovincialis* mussels using reduced SNP panels. ISLAS 2021, Online-Vigo (Spain), 20-21st October 2021. [Oral communication]

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., Pardo, M.A. (2022). Development of new molecular tools for tracing the geographical origin of farmed mussels (*Mytilus galloprovincialis*). International Postgraduate Course Research in Marine Environment & Resources RiMER-2022, Donostia-San Sebastián (Spain), 31-4th February 2022. [Oral communication]

del Rio-Lavín, A., Monchy, S., Jiménez, E., Pardo, M.A. (2022). Marcadores microbiológicos como herramienta para determinar el origen geográfico del mejillón Mediterráneo (*Mytilus gallprovincialis*) cultivado. Mikrobiogune, II Basque Microbiology Meeting, Bilbao (Spain), 13th December 2022. [Oral communication]

LABURPENA

Merkatuen globalizazioa eta itsas produktuen eskari hazkuntza dela medio, hornidura kateak gero eta konplexuagoak bilakatzen ari dira, trazabilitate ahaleginak erronka handia bihurtuz. Testuinguru honetan, arrain eta itsaskien etiketan ageri den informazioa zuzena dela egiaztatzeko tresna analitiko zehatzak garatzea ezinbestekoa da. Jatorri geografikoa egiaztatzea funtsezkoa da elikagaien trazabilitate eta segurtasun legeak betetzen direla ziurtatzeko, itsas baliabideen kudeaketa eraginkor eta jasangarria bermatzeko, bai eta agintari, ekoizle eta kontsumitzaile arduratsuen egungo eta etorkizuneko itxaropenak betetzeko ere. Hori dela eta, tesi hau *Mytilus galloprovincialis* muskuiluen jatorri geografikoa egiaztatzeko tresna analitikoen garapenera bideratuta dago, produktu fresko zein prozesatu hauen integritatea bermatzeko. Helburu hau lortzeko, tesia lau kapitulutan banatu da.

Itsas produktuen etiketan ageri den informazioa zuzena dela bermatzeko, jatorri geografikoa egiaztatu aurretik, arrain edo itsaskiaren espeziea egiaztatzea da egin beharreko lehengo pausua. Hori dela eta, **1. kapituluan**, Europar Batasunean merkaturatzen diren *Mytilus* espezie garrantzitsuenak identifikatzeko denbora errealeko PCR metodo azkar, fidagarri eta errentagarri bat garatu da. Muskuilu espezie ezberdinen bisuko proteina itsasgarriak kodetzen dituen genea anplifikatuz, eta DNA produktu horien disoziazio-kurbak aztertuz, muskuilu fresko, izoztu edo kontserben espeziea % 100eko espezifikotasunaz, sentikortasunaz eta zehaztasunaz identifikatu da. Gainera, metodo hau termoziklagailu ezberdinetan eta *software* berezien beharrizanik gabe erabil daitekeela erakutsi dute emaitzek. Hortaz, kapitulu honetan deskribaturiko metodologia muskuilu espeziearen autentifikaziorako erabilgarria da eta gainera, erraz erabil daiteke elikagaien segurtasuna eta identitatea bermatzen duten kontrol laborategietan, ohiko analisi azkar gisa.

Indibiduoen espeziea egiaztatu ondoren, jatorria egiaztatzeko tresna analitikoen erabilera ikertu da. Horretarako, proposatutako lehenengo metodologia markatzaile genetikoen erabileran oinarritzen da (**2. kapitulua**). Kapitulu honetan, RAD-seq

teknikaren bidez, muskuiluen genoman zehar sakabanatutako milaka nukleotido bakarreko polimorfismo (SNP) markatzaile identifikatu dira, eta hauek erabiliz, *M. galloprovincialis* bibalbioen populazio egitura argitu da bere jatorrizko banaketa eremuan zehar. Gainera, aurkitu berri diren markatzaile genetiko hauen jatorria esleitzeko ahalmena aztertu da. Emaitzek Atlantikoko eta Mediterraneoko *M. galloprovincialis* populazioak nabarmen bereizten direla erakutsi dute. Aldi berean, nahiz eta antzinako populazio beretik etorri, Mediterraneoko muskuilu natiboen eta sartu berri diren Ozeano Bareko hego-ekialdeko muskuiluen artean ezberdintasun esanguratsuak daudela ikusi da. Gainera, ahalmen diskriminatzaile handiena agertu duten 10-25 SNP erabiliz, testatutako indibiduoen % 90-100a Atlantikoko edo Mediterraneoko/Hego-ekialdeko jatorri eremuetara era egokian esleitu dira.

3. kapituluan, *M. galloprovincialis* muskuiluen jatorri geografikoa egiaztatzeko, aztarna elementuen eta isotopo egonkorren konposizioa, era independentean zein konbinatuan, erabiltzearen potentziala aztertu da. Analisirako, laginak Mediterraneo itsasoko, Europako kostalde Atlantikoko eta Ozeano Bareko hego-ekialdeko zortzi eskualde ezberdinetatik hartu dira. Emaitzen arabera, alde nabarmenak daude akuiluktura-instalazio ezberdinetan hazitako muskuiluen konposizio kimikoen artean, eta bereziki eskualde geografiko desberdinetakoak direnen artean. Ikaste automatikoan oinarritutako *Random Forest* sailkapen-metodoa erabiliz, aztarna kimikoen (isotopo egonkor eta aztarna-kimikoen) datuen konbinazioak, jatorria zehaztasun handiz aurreikusteko gaitasunik handiena erakutsi du; testatutako indibiduoen % 97a behar bezala esleitu dira, jatorriaren bereizketarako elementu garrantzitsuenak $\delta^{13}C$, $\delta^{15}N$, Pb, Ba, Mn, eta Al izanik.

4. kapituluan, *M. galloprovincialis* muskuilu freskoen digestio-guruinean dauden bakterio-komunitateen profilak aztertu dira, hazkuntza jatorria bereizteko trazabilitate tresna gisa erabil ote daitezkeen ikertzeko. Horretarako, 2019an, Espainiako hiru eskualde ezberdinetan (Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Katalunian) kokatutako bost akuikultura-instalazio ezberdinetatik laginak bildu ziren urtaroka, eta haien bakterio-komunitatearen konposizioa aztertu zen 16S rRNA genearen V3-V4 gune aldakorraren anplifikazio eta sekuentziazioaren bitartez. Emaitzek bakterio-

komunitateen profilak jatorriaren eta urtaroaren arabera nabarmen aldatzen direla erakutsi dute, jatorri geografikoaren eragina urtaroen aldakortasuna gainditzen duelarik. Trazabilitate tresna honen egonkortasuna eta potentziala aztertzeko, 2020ko udazkenean EAEn bildutako 20 indibiduo berriren bakterio profila (laginak era independentean prozesatu, sekuentziatu eta analizatu ostean lortua), 2019an lortutako profilekin alderatu zen. Emaitzek, EAEn bi urtez jarraian bildutako muskuiluak elkarrekin biltzen direla erakutsi dute, baita uzta-denboraldiarekin bat datozela ere.

Lan honetan aztertutako tresnak hazitako *M. galloprovincialis* muskuiluen jatorri geografikoa egiaztatzeko egokiak direla frogatu da, eta beraz, funtsezko zeregina izan dezaketela merkataritza globalizatuaren gardentasuna eta segurtasuna bermatzeko. Halaber, azpimarratzekoa da momentuz ez dagoela tresna perfekturik, denek agertzen baitituzte mugak. Beraz, aztertu nahi den espeziearen eta produktu motaren arabera (bizirik edo prozesatuta), tresna bakoitzaren egokitasuna aztertu beharko da.

SARRERA OROKORRA

1. *Mytilus galloprovincialis*: taxonomia eta banaketa-eremua

Mytilus generoko muskuiluak munduan zehar oso hedatuta dauden bibalbio janari-filtratzaileak dira (Gosling, 2003). Ipar eta hego hemisferioko ur hotz eta epeletako itsasertz arrokatsuetan ageri dira (Seed and Suchanek, 1992; Hilbish et al., 2000) (**1. irudia**). Bibalbio hauek ingeniari ekologiko gisa (Arribas et al., 2014), kutsaduraren biomarkatzaile gisa (Hagger et al., 2008; Garmendia et al., 2010; Grbin et al., 2019) eta akuikultura espezie gisa (FAO, 2022b) duten garrantziagatik itsas organismo aztertuenen artean daude. Egun, zortzi espeziek osatzen dute *Mytilus* generoa: *M. californianus* (Conrad, 1837), *M. chilensis* (Hupé, 1854), *M. edulis* (Linnaeus, 1758), *M. trossulus* (Gould, 1850), *M. planulatus* (Lamarck, 1819), *M. platensis* (d'Orbigny, 1842), *M. unguiculatus* (Valenciennes, 1858) and *M. galloprovincialis* (Lamarck, 1819) (World Register of Marine Species, 2022). Aipatutako espezieetatik, hiruk Europan dute jatorria: *M. edulis*, *M. galloprovincialis* and *M. trossulus.* Hauek hirurak "*Mytilus edulis* konplexua" osotzen dute (McDonald et al., 1991). Espezie bakoitzak eskualde biogeografiko propioa du, baina trantsizio eremuetan (maila geografikoa gainjartzen den tokietan) hibridoak sor daitezke aldameneko espezieen artean (Hilbish et al., 2002; Gosling et al., 2008; Zbawicka et al., 2014).

Mytilus galloprovincialis (**1. kutxa**) muskuiluaren jatorrizko banaketa-eremua Mediterraneo itsasoa, Itsaso Beltza eta Ozeano Atlantikoko ekialdeko kosta (Irlandatik Marokoraino) da (Gosling, 1992). Hala ere, gizakiak eragindako ekintzengatik, bai istripuz (itsas garraioen bidez) zein berariaz (akuikultura ekoizpenerako), eta ingurumen-baldintza desberdinetara bizkor egokitzeko duen gaitasunagatik, mundu osoan zehar hedatu da. Gaur egun, Japonian, Hong Kongen, Ipar Amerikako mendebaldeko kostaldean (Kaliforniako hegoaldetik (AEB) Columbia Britainiarrera (Kanada)), Txilen, Australian, Hego Afrikan, Norvegian, Groenlandian, Txinako iparraldean eta Errusiako ekialdean topatu da (Lee and Morton, 1985; McDonald et al., 1991; Geller et al., 1994; Apte et al., 2000; Anderson et al., 2002; Elliott et al., 2008; Wilkins et al., 2008; Gardner et al., 2021). Hori dela eta, *M. galloprovincialis* munduko espezie inbaditzaile arrakastatsuenen zerrendan ageri da (Global Invasive Species Database, 2022).



1. Irudia. *Mytilus* generoko muskuiluen taxonomia eta jatorri-eremua. Irudi eraldatua; iturria: Gaitán-Espitia et al. (2016).

1Kutxa

Mytilus galloprovincialis espeziaren datu-txartela

Morfologia eta anatomia *Gorputza kaltzio karbonatozko bi kuskuko maskor batez babestua du. Maskorraren egitura luzanga eta zertxobait triangeluarra da, eta kanpotik kolore urdin-beltza agertzen du:*



Tamaina *5-12 cm*

Tenperatura *10-32 °C (Optimoa 17 °C)*

Gazitasuna *10-38 ppt*

Dieta *Janari-iragazlea da. Bere elikadura fitoplankton, zooplankton eta partikula organiko inerteetan oinarritzen da.*

Ugalketa *Kanpo-ernalketaren bitartez ugaltzen dira, hau da, arrek eta emeek euren gametoak uretara askatzen dituzte eta bertan gertatzen da ernalketa, zigotoa eratuz. Prozesu hau urtean behin, birritan edo gehiagotan gerta daiteke. Galizian, esaterako, ugalketa prozesua urte osoan zehar gertatzen da, udaberrian eta udazken hasieran nabarmenagoa izanik. Garapen enbrionarioaren ondoren, lehen larba sortuko da, trokofora izenekoa. Larbak izen ezberdinak hartuko ditu garapenean zehar: beliger, unboduna eta pedibeliger. Ur mugimenduei esker, larben sakabanaketa gertatzen da. Larba-bizitza finkaketa prozesuarekin amaitzen da, larba substratuari itsastean. Momentu horretan metamorfosia gertatzen da, hau da, egitura eta bizimodu aldaketa (bizimodu pelagikotik bentonikora).*

Garrantzia
- *Ingeniari ekologiko gisa*
- *Kutsadura biomarkatzaile gisa*
- *Akuikultura espezie gisa*

Informazio iturria: (Figueras, 2007; OESA, 2017)

2. Muskuiluen akuikultura ekoizpena eta merkataritza

Akuikulturak azken hamarkadan mundu mailan izan duen garapena izugarria izan da, eta horrek ekarpen handia egin dio itsas jakien hornidurari. 2020an, 88 milioi tona (265 mila milioi dolar) arrain eta itsaski ekoitzi ziren akuikultura bidez, munduko ekoizpen osoaren % 49a (FAO, 2022b). Hazitako animalien artean, muskuiluek garrantzi handia dute. 2020an muskuiluen ekoizpena 2,05 milioi tonara iritsi zen, 3,3 milioi dolarreko balioarekin, duela hamar urte ekoitzitako kopuruaren bikoitza baino gehiago (FAO, 2022a). Urte horretan, munduko muskuilu ekoizle nagusiak Txina (% 43), Txile (% 19,5), Espainia (% 10), Zeelanda Berria (% 5), Koreako Errepublika, Frantzia eta Italia izan ziren (**2. irudia**), Europak ekoizpen osoaren % 21a bere gain hartuz.



2. Irudia. Munduko muskuilu akuikultura-ekoizpena herrialdeka. Datu iturria: FAO (2022a).

Europar Batasunean (EBn), muskuiluek akuikultura-ekoizpenaren bolumen osoaren % 37,45a hartzen dute, *M. galloprovincialis* eta *M. edulis* izanik gehien ekoizten eta kontsumitzen diren espezieak. 2020an ekoizpena 409.622 tonakoa izan zen, 439 milioi euroko balioarekin, hau da, akuikulturan hazitako molusku-uzta osoaren % 76,2a (FAO, 2022a). Urte honetan, ekoizle nagusiak Espainia (% 49,9), Frantzia (% 13,5), Italia (% 12,3) eta Herbehereak (% 7,9) izan ziren (**3. irudia**). Muskuiluen merkataritzari dagokionez (EUMOFA, 2022a) (**4. irudia**), EBn ekoizten diren *Mytilus* muskuiluen inportazio eta esportazioen % 96a bertako herrialdeen artekoa da. Europar batasunetik kanpoko merkataritzan beste muskuilu espezie batzuk salerosten dira, hala nola, *M. chilensis* edo *Perna spp*. 2020an EBz kanpoko inportazioak 47.000 tonara iritsi ziren; horietatik % 84a (39.400 tona) Txiletik etorritako kontserbako muskuiluak izan ziren, eta % 9a Erresuma Batutik etorritako muskuilu freskoak. Espainiak, Frantziak eta Italiak inportatutako muskuilu hauen % 73a jaso zuten. EBz kanpoko esportazioei dagokionez, 2020an 8.600 tona banatu ziren, % 57a muskuilu freskotan eta % 35a kontserban. Helmuga nagusiak Erresuma Batua (% 48), Suitza (% 16) eta AEB (% 8) izan ziren.



3. Irudia. EBko muskuilu akuikultura-ekoizpena herrialdeka.



4. irudia. EBeko muskuiluen hornikuntza, 2020an, tonatan (t). EUMOFAko konbertsio-faktoreak erabili dira inportazio eta esportazio produktu prosezatuen pisu garbia musluilu freskoen pisura bihurtzeko. Irudi eraldatua; jatorria (EUMOFA, 2022b).

Ikusi dugunez, *Mytilus galloprovincialis* espezieak garrantzi handia du akuikulturan, hauen hazkuntza, kaiola flotagarrietan, "longline" sistemetan edo substratu gaineko hazkuntza sistemetan egiten delarik (Smaal, 2002). Espainia EBeko *M. galloprovincialis* ekoizle nagusia da, urtean 200.000 tona inguru haziz (OESA, 2017; EUMOFA, 2022a). Muskuilu horien % 95a baino gehiago Galizian ekoizten da, Iberiar penintsularen ipar-mendebaldeko kostaldean. Sektore honek tradizio luzea du Galizian eta bertako ekonomian nabarmenki eragiten du hainbat lanpostu sortuz tokiko biztanleen artean. Ekoizpenaren gainerako % 5a Katalunian (Ebro deltako bi arroetan, Fangar eta Alfacs-en), Andaluzian, Valentziako Erkidegoan, Balear Uharteetan eta, berriki, Euskal Herrian egiten da (OESA, 2017). Horretaz gain, Espainia Europa mailan saltzen diren prozesatutako muskuiluen ekoizle nagusia ere bada, 2019an 14.406 tona muskuilu kontserban ekoitzi zituelarik (EUMOFA, 2022b). Espezie hau oso preziatua da bai zapore eta bai nutrizio aldetik. Elikadura-iturri garrantzitsu bat da, kalitate handiko proteinak, mineralak, bitaminak eta omega-3 gantz-azido esentzialak ematen dituelako (Wright et al., 2018).

3. Itsas produktuen jatorria egiaztatzearen garrantzia

Trazabilitatea produktu bati buruzko edozein informazio eskuratzeko gaitasuna da, bere bizi ziklo osoan zehar eta identifikazio erregistratuen bidez. Hau, paperezko erregistro tradizionalen bidez edo azkenengo urteetan garatzen ari diren sistema digitalen bidez (adibidez, bloke-katea edo "*Blockchain*" teknologia) egiten da (Olsen and Borit, 2013; Galvez et al., 2018). Kasu gehienetan, trazabilitate-sistema hauei esker, arrantza jatorriei buruz, haiekin burututako eraldaketa eta prozesuei buruz, edota hornidura-katean zehar egiten dituzten mugimenduei buruzko informazio fidagarria lor daiteke. Hau da, itsasoko produktuen funtsezko ezaugarri askori buruzko informazioa ematen dute (Schröder, 2007; Olsen and Borit, 2013).

Hala ere, egun, merkatuen globalizazioa eta itsas produktuen eskari hazkuntza dela medio, hornidura kateak gero eta konplexuagoak bilakatzen ari dira, trazabilitate ahaleginak zailduz (Leal et al., 2015; Fox et al., 2018). Nazioarteko arrain eta itsaski hornidura kateak oso konplexuak dira; espezie asko merkaturatzen dira eta bitartekari askok parte hartzen dute, besteak beste, arrantzaleak eta akuikultura-ekoizleak, eraldatzaileak, handizkariak, banatzaileak eta txikizkariak (Fox et al., 2018). Honen ondorioz, arrain eta itsaskiek bide luzea egiten dute hartzen direnetik gure etxeko sukaldeetara heltzen direnera arte. Egoera honetan, itsas produktuen etiketan ageri den informazioa zuzena dela egiaztatzeko tresna analitiko zehatzak garatzea ezinbestekoa da, trazabilitate-sistemen bidez bildutako datuak balioztatuko dituztenak.

Itsas produktuen etiketatze okerrak ondorio larriak izan ditzake ekonomian, ingurumenean eta giza osasunean. Orain arte, itsas produktuen benetakotasuna bermatzeko ahalegin gehienak etiketan ageri den espeziaren izena egiaztatzera bideratu dira, jatorria egiaztapena albo batera utzita. Jatorriaren nahitaezko etiketatze okerra, jatorri iruzurra, irabazi ekonomiko bat lortzeko egiten da, askotan arraina edo itsaskia kalitate eta balio txikiagoko produktu batekin ordezkatuz, edota jasangarritasun eta etika erregulazio gutxiago dituen toki batetik hartuz. Nolanahi ere, jatorriaren etiketatze okerrak, engainu ekonomikoa ez ezik, segurtasuna, jasangarritasuna eta kontsumitzailearen konfiantza kolokan jartzen ditu (Lindley, 2020). Ingurumenari

dagokionez, jatorri iruzurrak arriskuan dauden edo gehiegi ustiatuta dauden espezieen merkataritzari ateak ireki diezazkioke, arrantzaren iraunkortasuna eta itsas ekosistemen jasangarritasuna kaltetuz (Jacquet and Pauly, 2008; Agnew et al., 2009). Kontsumitzaileei dagokionez, etiketatze okerrak uko egin diezaioke jaten dituzten itsaskien jatorriari buruzko baliozko aukera bat egiteko eskubideari (Kelly et al., 2005; Fonner and Sylvia, 2015). Gerta daiteke kontsumitzaileek tokiko produktuak erosi nahi izatea bertako akuikulturari laguntzeko edo garraioari lotutako CO_2 aztarnak gutxitzeko. Era berean, jatorria gaizki etiketatzeak ondorioak ekar ditzake elikagaien segurtasun arloan. Patogenoekin, biotoxinekin edo kutsatzaile kimikoekin kutsatuta egon daitezkeen eremu mugatuetan sortutako itsaskiak kontsumitzea, arriskutsua izan daiteke gizakien osasunerako (Feldhusen, 2000; Guo et al., 2007). Jatorria egiaztatzea bereziki garrantzitsua da bibalbioen kasuan, hainbat infekzio-agerraldirekin lotu direlako. Janari-filtratzaileak izanik, patogenoak (adib., *E. coli*, *Salmonella* spp. edo *Vibrio* spp.) metatzeko eta kontzentratzeko gai dira, eta gainera, maiz gordinik edo azpi-egosita kontsumitzen dira, arriskua areagotuz (Potasman et al., 2002; Rodriguez-Manzano et al., 2014; Hassard et al., 2017; Romalde et al., 2018).

Faktore guzti hauek trazabilitatea erregulatzeko prozedura eta araudien garapena bultzatu dute. Itsas produktuen jatorriari buruzko informazioa eskaintzearen beharra nazioarteko legeetan islatzen da. Europar batasunean, Kontseiluaren 1379/2013 (EE) Erregelamenduak, kontseiluaren 1184/2006 (EE) eta 1224/2009 (EE) Erregelamenduak aldatzen dituena, eta Kontseiluaren 104/2000 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena, arrantza eta akuikulturako produktuen etiketek adierazi beharrekoa arautzen du. Lege honen arabera, espeziaren merkataritza-izena eta izen zientifikoa, ekoizpen metodoa eta produktua harrapatu edo hazi den eremua adieraztea nahitaezkoa da (EU, 2013b).

Nahitaezko lege hauetaz gain, jatorri geografikoa aitortzen duten borondatezko etiketak ere badaude. Alde batetik, jatorri-deitura babestuak eta adierazpen geografiko babestuak daude. Bi adierazpen geografiko hauek produktu bat jatorriz eremu geografiko jakin batekoa dela ziurtatzen dute, haren kalitate edo ezaugarriek jatorriarekin harreman estua dutelarik. Honen ondorioz, produktu hauek balio gehigarria

hartzen dute. Muskuiluen kasuan, *M. galloprovincialis* espezieari dagokionez, Espainian, Galiziako muskuiluak ("Mexillón de Galicia"), eta Italian, Scardovari-ko muskuiluak ("Cozza di Scardovary") Europar Batasunaren jatorri-deitura babestuaren zigilua dute (EU, 2007; EU, 2013a). Bestetik, MSC eta ASC zigiluak daude. Borondatezko zigilu hauek, produktuen jasangarritasuna bermatzeaz gain, zaintza-katearen ziurtagiria ere badute. Ziurtagiri honek hornidura katearen maila bakoitza ziurtatzen du, jatorritik azken produktura arte egin duen bidea bermatuz.

Beraz, nahitaezko zein borondatezko etiketetan agertzen den jatorriari buruzko informazioa zuzena dela bermatzeko eta lehen aipatutako gaizki etiketatzearen ondorioak ekiditeko, premiazkoa da metodo zientifiko zehatz eta sentikorrak garatzea, kontrol-agintariek eta erakunde arautzaileek jatorri geografikoa egiaztatzeko aukera izan dezaten.

3.1. Jatorria egiaztatzeko tresnak

Arrain eta itsaskien jatorria arakatzeko edo egiaztatzeko metodologia ugari proposatu eta aplikatu dira, bai era independentean zein konbinatuan (Leal et al., 2015; Gopi et al., 2019a; Cusa et al., 2021). Metodologia hauek aztarna-elementuen analisian (Ricardo et al., 2015; Bennion et al., 2019; Gopi et al., 2019b), isotopo egonkorren analisian (Kim et al., 2015; Bernatchez et al., 2017; Gopi et al., 2019b; Zhao et al., 2019; Doubleday et al., 2022), gantz-azidoen analisian (Ricardo et al., 2017c; Fonseca et al., 2022), espektroskopian (Liu et al., 2015; Ghidini et al., 2019) eta DNAren analisian (Ogden, 2011; Nielsen et al., 2012; Larraín et al., 2014; Ogden and Linacre, 2015; Rodríguez-Ezpeleta et al., 2019) oinarritzen dira besteak beste. Konkretuki, lan honetan DNAren, aztarna elementuen eta bakterio-komunitateen analisian oinarritutako tresna analitikoak garatuko dira jatorria egiaztatzeko.

3.1.1. Markatzaile genetikoak

Markatzaile genetikoak askotan erabili izan dira arrain eta itsaski espezieak identifikatzeko, aldiz, ez hainbeste haien jatorri geografikoa identifikatzeko. Honen arrazoia da, jatorria egiaztatzeko, oinarrizko datu genetiko egokiak behar direla, analisi

estatistikoak konplexuagoak direla, eta emaitzak interpretatzeko espeziearen eboluzio eta biologiaren ikuspegi sakonagoa behar dela (Nielsen, 2016). Jatorri geografikoaren identifikazio genetikoa indibiduo bat bere jatorrizko populazio genetiko edo ebolutiboari esleitzeko gaitasunean oinarritzen da, eta horretarako, bere jatorrizko populazioa gainerako populazioetatik aski desberdina izan behar du (Ogden and Linacre, 2015). Beraz, jatorria identifikatzeko, lehenengo urratsa espezie horren populazioaren egitura identifikatzea da. Espezie jakin batek ez baldin badu populazio-bereizketarik azaltzen bere eremu geografikoan zehar, orduan teknika genetikoak ez dira eraginkorrak izango. Aldiz, markatzaile genetikoren bat intereseko populazioak banatzeko gai baldin bada, orduan jatorriaren esleipen probabilitatea estimatu daiteke. Markatzaile genetikoak lortzeko erabiltzen diren laborategi eta konputazio teknikak nabarmen garatu dira azken hamarkadan. Hori dela eta, ugaritu egin dira eskura ditugun markatzaile genetiko motak: markatzaile klasikoetatik hasita (adib. murriztapen-zatien luzerako polimorfismoak, anplifikatutako-zatien luzerako polimorfismoak, mikrosateliteak eta polimorfismo mitokondrialak), markatzaile berriagoetara (adib. SNPak) (Cuéllar-Pinzón et al., 2016). Ildo berean, errendimendu handiko sekuentziazio teknologien garapenak (adib. RAD-seq), genoma osoan milaka SNP markatzaile identifikatzea ahalbidetu dute, bereizmen handiko datu genomikoak emanez. Arrain eta itsaskien trazabilitateari dagokionez, zenbat organismoekin egindako ikerketek SNP markatzaileak jatorri geografikoa esleitzeko baliagarriak direla frogatu dute, hala nola, Atlantikoko izokinaren, Atlantikoko hegaluzearen, Bizkaiko golkoko antxoaren, Atlantikoko bakailaoaren, Atlantikoko sardinzarraren, Europako mihi-arrainaren eta legatzaren jatorria esleitzeko (Nielsen et al., 2012; Gilbey et al., 2016; Montes et al., 2017).

3.1.2. Aztarna-elementuak

Moluskuen maskorrak, ornogabeen estatolitoak edo arrainen otolitoak bezalako egitura biogeniko gogorretan pilatzen diren aztarna-elementuak markatzaile natural gisa erabil daitezke indibiduoen populazioak bereizteko (Leal et al., 2015). Egitura hauek indibiduoekin batera hazten dira, eta inguruko urek eta ingurumen baldintzek eragin zuzena dute haien konposizioan (Becker et al., 2005; Strasser et al., 2008). Hau da, egitura hauetatik lortutako aztarna-elementuek indibiduo jakin baten ingurune

geografikoa islatzen dute jaiotzetik harrapatzen direnera arte, eta hortaz, jatorri geografikoa bereizteko erabil daitezke. Aztarna-elementuen analisia, induktiboki akoplatutako plasma iturridun masa-espektrometroa (ICPMS) eta analisi estatistikoetan oinarritutako sailkapen metodoak erabiliz, arrain eta itsaskien jatorri geografikoa esleitzeko metodo eraginkorra dela frogatu da zeinbait kasutan (Broadaway and Hannigan, 2012; Ricardo et al., 2015; Artetxe-Arrate et al., 2019).

3.1.3. Bakterio-komunitateak

Bakterio-komunitateen analisiek organismo jakin baten dauden bakterioen profil orokorra erakusten dute. Bakterio profil hau eremu geografikoaren berariazkoa dela oinarritzat hartuz, markatzaile biologiko gisa erabil daiteke jatorria arakatzeko. Arrain eta itsaskiei loturiko bakterio-komunitateen analisia, bai eta lortutako profila jatorri geografikoari esleitzea ere, biologia molekularreko teknika tradizionalak erabiliz aztertu da, hala nola, 16S rRNA genean oinarritutako PCR-DGGE teknikaren bidez (Le Nguyen et al., 2008; Montet et al., 2008; Léopold et al., 2010). Azken aldian, NGS metodoen garapenarekin, bereizmen handiagoko analisi azkarragoak eta errentagarriagoak erabiltzen ari dira bakterioen konposizioa aztertzeko. Jatorri geografikoa egiaztatzeari dagokionez, ikerketa gutxi batzuek baino ez dute bakterioen komunitateen analisiek duten potentziala aztertu; hauen artean daude, akuikultura bidez ekoitzitako lupiarekin, (*Dicentrarchus labras*) (Pimentel et al., 2017), *Ruditapes philippinarum* txirlekin (Milan et al., 2019) eta *Mya arenaria* txirlekin (Liu et al., 2020) egindako ikerketak.

HIPOTESIA ETA HELBURUAK

Hipotesia

"Markatzaile genetikoak, aztarna-elementuen konposizioa eta bakterio-komunitateen profila hazitako M. galloprovincialis muskuiluen jatorri geografikoa egiaztatzeko erabil daitezke.

Helburuak

Lan honen helburu nagusia *Mytilus galloprovincialis* muskuiluen jatorri geografikoa egiaztatzeko tresna analitikoak garatzea da, itsas produktuen integritatea bermatzeko. Helburu nagusi hau lortzeko, honako helburu zehatz hauek landuko dira:

1. Europan merkaturatzen diren *Mytilus* espezie garrantzitsuenak (*M. galloprovincialis, M. edulis eta M. chilensis*) identifikatzeko DNAn oinarritutako tresna azkar, fidagarri eta errentagarria garatzea, bai muskuilu fresko zein prozesatuetan erabiltzeko. (1. kapitulua)
2. RAD-seq teknikaren bidez lortutako SNP markatzaileek *M. galloprovincialis* muskuiluen jatorria egiaztatzeko duten ahalmena aztertzea, lehenbizi haien populazio egitura zehaztuz eta ondoren, aukeratutako SNPen jatorria esleitzeko ahalmena aztertuz (2. kapitula).
3. *M. galloprovincialis* muskuiluen jatorri geografikoa egiaztatzeko, aztarna-elementuen eta isotopo egonkorren konposizioa, era independentean zein konbinatuan, erabiltzearen potentziala ebaluatzea (3. kapitula).
4. *M. galloprovincialis* muskuiluen digestio-guruinean dauden bakterio-komunitateen konposizioa eta egonkortasuna aztertzea, bai eta jatorri geografikoa egiaztatzeko tresna gisa duen potentziala aztertzea ere (4. kapitulua).

1. KAPITULUA

Mytilus espezieen identifikazioa *SYBR-Green* bidezko denbora errealeko PCR probaren disoziazio-kurben analisiarekin

Kapitulu hau honela argitaratu zen:

del Rio-Lavín, A., Jiménez, E., and Pardo, M. A. (2021). SYBR-Green real-time PCR assay with melting curve analysis for the rapid identification of *Mytilus* species in food samples. *Food Control*, 130: 108257.
https://doi.org/10.1016/j.foodcont.2021.108257

Laburpena

Mytilus generoko muskuiluek garrantzi handia dute Europar Batasuneko akuikultura ekoizpenean, *M. galloprovincialis*, *M. edulis* eta *M. chilensis* izanik bertan merkaturatzen diren espezie nagusiak. Hortaz, bibalbio hauen espeziea egiaztatzea funtsezkoa da etiketetan ageri den informazioa zuzena dela bermatzeko, eta trazabilitatea eta gardentasuna indartzeko. Lan honetan, 174 muskuilu lagin erabili dira EBn merkaturatzen diren *Mytilus* espezie garrantzitsuenak identifikatzeko gai den denbora errealeko PCR metodo azkar, fidagarri eta errentagarri bat garatzeko. Muskuiluen bisuko proteina itsasgarriak kodetzen dituen genea anplifikatuz, eta PCR produktu horien disoziazio-kurbak aztertuz, muskuilu fresko, izoztu edo kontserben espeziea % 100eko espezifikotasunaz, sentikortasunaz eta zehaztasunaz identifikatu da. Gainera, metodo hau PCR termoziklagailu ezberdinetan eta *software* berezien beharrizanik gabe erabil daitekeela erakutsi dute emaitzek. Hortaz, kapitulu honetan deskribaturiko metodologia, *Mytilus* generoko muskuiluen espeziea egiaztatzeko erabilgarria da eta gainera, erraz inplementa daiteke elikagaien segurtasuna eta identitatea bermatzen duten kontrol laborategietan, ohiko analisi azkar gisa.

1. Sarrera

Muskuiluak munduan zehar oso hedatuta daude eta akuikultura espezie gisa garrantzi handia dute. Egun kontsumitzen diren muskuiluen % 94a akuikulturak hornitzen du. Munduko muskuilu ekoizpenak goranzko joera erakutsi du 2007tik 2016ra, Europar Batasuna izanik ekoizle nagusienetariko bat (EUMOFA, 2019). EBn bi muskuilu espezie hazten dira gehien bat: *M. galloprovincialis* (Espainia eta Italia ekoizle nagusiak izanik) eta *M. edulis* (Herbehereak eta Frantzia ekoizle nagusiak izanik) (EUMOFA, 2019). Bi espezie horien eremu geografikoa gainjartzen denean, hibridoak sortzen direla ikusi da (Hilbish et al., 2002; Beaumont et al., 2004; Michalek et al., 2016). Itsas produktu hauen eskari hazkuntza dela medio, Txiletik genero bereko *M. chilensis* muskuiluak inportatzen dira. Espainia EBeko *M. galloprovincialis* ekoizle nagusia da, urtean 200.000 tona inguru haziz, eta aldi berean, kontsumitzaile nagusienetariko bat ere bada. Hortaz, aurretiaz aipatutako hiru *Mytilus* espezieak topa daitezke Espainiako merkatuetan, bai freskoan bai kontserban.

Arrain eta itsaskien ezaugarri morfologikoak eraldatzen edo kentzen direnean, hauen autentifikazioa zaildu egiten da. Askotan, muskuiluak maskorrik gabe merkaturatzen dira, eta horrek begi-bistako espeziearen identifikazioa oztopatzen du. Europar Batasunean, arrantza eta akuikulturako produktuen merkaturatzeari dagokion Kontseiluaren 1379/2013 (EE) Erregelamendua oso zorrotza da. Lege honen arabera, espeziaren merkataritza-izena eta izen zientifikoa, ekoizpen metodoa eta produktua harrapatu edo hazi den eremua adieraztea nahitaezkoa da (EU, 2013b). Beraz, arrain eta itsaskien espeziearen identifikazioa ezinbestekoa da aipatutako legedia betetzen dela ziurtatzeko, etiketa iruzurra saihesteko eta trazabilitatea bermatzeko.

Mytilus generoko espezieak identifikatzeko, PCR bidezko DNA markatzaile espezifiko baten anplifikazioan oinarritutako metodoak erabiltzen dira gehien bat (Santaclara et al., 2006; Fernández-Tajes et al., 2011; Brooks and Farmen, 2013; Meistertzheim et al., 2017; Zhang et al., 2019). Orain arte erabilitako markatzaile molekularren artean, muskuiluen bisuko proteina itsasgarriak kodetzen dituen genea izan da erabiliena. Gene hau PCR

bidez anplifikatu eta ondoren, AFLP (Inoue et al., 1995; Brooks and Farmen, 2013) edo RFLP (Santaclara et al., 2006; Fernández-Tajes et al., 2011) teknikak erabiliz aztertu izan da. Analisia azkartzeko, denbora errealeko anplifikazio metodoak ere garatu dira, bai *TaqMan*^{TM} zunden erabileran (Dias et al., 2008) zein HRM teknikaren erabileran (Jilberto et al., 2017) oinarritu direnak.

Azkenengo bi metodo hauek analisi denbora nabarmen murrizten duten arren, desabantaila batzuk ere badituzte. Lehenengo teknikaren kasuan, zundak erabili behar direnez analisia garestitzen da, eta bigarren teknikaren kasuan, tresna eta *software* espezifikoak behar dira analisia burutu ahal izateko. Muga hauek gainditzeko, lan honetan, *SYBR-Green* bidezko denbora errealeko PCR proba, anplifikatutako produktuen disoziazio-kurben (edo urtze-kurben) analisiarekin, erabiltzea proposatzen da. Metodo honek, zunda fluoreszenteak erabili ordez, kate bikoitzeko DNAri lotzen zaion *SYBR-Green* molekula tindatzailea erabiltzen du. Gainera, denbora errealeko termoziklagailu arruntetan eta *software* berezien beharrizanik gabe erabil daiteke, kostuak murrizten direlarik. Teknika hau hainbat espezie identifikatzeko egokia dela frogatu da (Hsu et al., 2003; Barcenas et al., 2005; Yu et al., 2005; Berry and Sarre, 2007; Winder et al., 2011; Castigliego et al., 2015).

Lan honetan, *SYBR-Green* bidezko denbora errealeko PCR metodo azkar, fidagarri eta errentagarri bat garatu da, anplifikatutako produktuen disoziazio-kurbak aztertuz, Europar Batasunean merkaturatzen diren *Mytilus* espezie garrantzitsuenak identifikatzea ahalbidetzen duena, bai muskuilu freskoa zein prozesatua izan.

2. Materialak eta metodoak

2.1. Laginketa eta DNAren erauzketa

Mytilus generoko 174 erreferentzia lagin bildu ziren: 89 *M. galloprovincialis*, 26 *M. edulis*, 24 *M. chilensis*, 7 *M. trossulus* eta 28 *M. galloprovincialis* x *M. edulis* hibrido. Erreferentziazko lagin hauen espeziea PCR-RFLP Me15-16 *AciI* metodoaren bitartez identifikatu zen, aurrerago zehazten den bezala (Santaclara et al., 2006). Kontrol

negatibo gisa, *Mytilus* generokoak ez ziren honako bibalbio hauek hautatu ziren: *Callista chione*, *Cerastorema edule*, *Crassostrea gigas*, *Ensis macha*, *Ostrea edulis*, *Perna viridis*, *Ruditapes decussatus*, *Tagelus dombeii* and *Venerupis philippinarum* (lau indibiduo espezie bakoitzeko). Horrez gain, 16 muskuilu produktu prozesatu (ozpinetan, oliba oliotan, espeziekin edo saltsan egosita) erosi ziren Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuetan. Produktu bakoitzeko bi indibiduo aztertu ziren.

DNAren erauzketarako *Wizard® Genmic DNA Purification Kit*-a (Promega, Madison, WI, USA) erabili zen, 50 mg mantu ertzetik abiatuta eta fabrikatzailearen jarraibideei jarraituz. Prozesatutako laginen gehiegizko olioa paper batez kendu zen erauzketa hasi baino lehen. Erauzitako DNA *NanoDrop 1000* (Thermo Fisher Scientific, Waltham, MA, USA) espektrofotometroa erabiliz kuantifikatu zen. DNA lagin guztiak -20 °C-tan gorde ziren ondorengo analisietarako.

2.2. *Mytilus* espezieen identifikazioa PCR-RFLP Me15-16 *AciI* metodoa erabiliz

Erreferentziazko 174 muskuilu laginen espeziearen identifikazioa PCR-RFLP Me15-16 *AciI* metodoa erabiliz egin zen Santaclara et al. (2006)-ek deskribatu bezala. Laburki, PCRa egiteko 50 µl-ko nahasketa bat prestatu zen: 20 ng DNA, 0,2 mM dNTP, 2mM $MgCl_2$, 1 µM hasle bakoitzeko eta 1 U *Taq* DNA polimerasa (Illustra™, GE Healthcare, Chicago, IL, USA) erabiliz. PCRaren baldintzak honako hauek izan ziren: 5 minutuko hasierako desnaturalizazioa 95 °C-tan; 35 ziklo 30 s 95 °C-tan, 30 s 56 °C-tan eta 30 s 72 °C-tan; eta bukatzeko, 5 minutuko luzapena 72 °C-tan. Anplifikatutako produktuak % 1,5eko agarosa-gelean (p/v) aztertu ziren. *M. galloprovincialis* eta *M. chilensis* espezieak bereizteko, anplifikatutako produktuak *GFX PCR DNA eta Gel Band Purification Kit*-aren (Illustra™, GE Healthcare, Chicago, IL, USA) bitartez purifikatu ziren dimeroak eta hasleak kentzeko. Purifikatutako DNA produktuen digestioa, *AciI* entzimaren (Thermo Fisher Scientific, Waltham, MA, USA) 10 unitate eta DNAren 5 µl erabiliz egin zen. Nahasketa hau (20 µl guztira) gauez 37 °C-tan inkubatu zen. Digeritutako laginak *DNA 1000 chip* (Agilent Technologies, Santa Clara, CA, USA) batean kargatu ziren eta *Bioanalyzer* (Agilent Technologies, Santa Clara, CA, USA) plataforma erabiliz aztertu ziren.

2.3. *Mytilus* espezieen identifikazioa *SYBR-Green* bidezko denbora errealeko PCR produktuen disoziazio-kurben analisiarekin

Denbora errealeko PCR saiakuntza hiru termoziklagailu ezberdin erabiliz burutu zen, haien artean egon zitezkeen aldeak ebaluatzeko: *LightCycler® 480 Instrument II* (Roche Molecular Systems, Pleasanton, CA, USA), *Step One™* (Applied Biosystems, Waltham, MA, USA) eta *CFX96 Touch DeepWell™* (BioRad, Hercules, CA, USA). Horretaz gain, bi PCR *Master Mix* (PCR nahasketa komertziala) alderatu ziren: *Brilliant III Ultra-Fast SYBR-Green QPCR Master Mix* (Agilent Technologies, Santa Clara, CA, USA) eta *LightCycler® 480 SYBR-Green I Master* (Roche Molecular Systems, Pleasanton, CA, USA).

PCR erreakziorako nahasteak (10 µL) honako hau zuen: 5 µL *Master Mix* A (*Brilliant III Ultra-Fast SYBR-Green QPCR Master Mix*) edo *Master Mix* B (*LightCycler® 480 SYBR-Green I Master*), 20 ng DNA eta Dias et al. (2008) ikerketan deskribatutako hasleen 450 nM. Erreakzio baldintzak honako hauek izan ziren: 3 minutuko hasierako desnaturalizazioa 95 °C-tan eta 45 ziklo 5 s 95 °C-tan eta 10 s 60 °C-tan. PCR produktuen disoziazio-kurbak termoziklagailu berdinarekin neurtu ziren, 65 °C-tik 95 °C-ra tenperatura gradiente bat eginez eta 0.1 °C bakoitzeko fluoreszentzia neurtuz. PCR analisian DNArik gabeko kontrol negatibo bat eta espezie bakoitzaren erreferentziazko kontrol positibo bat ere neurtu ziren. Lortutako disoziazio-kurben grafikoak fluoreszentziaren balio logaritmikoek tenperaturarekiko zuten aldaketa erakutsi zuten.

2.4. Datuen analisia

Denbora errealeko PCR analisiaren bidez lortutako disoziazio-kurben grafikoek seinale fluoreszenteen balio logaritmikoak tenperaturarekiko zuten aldaketa erakutsi zuten. Disoziazio-kurbaren piko bakoitzak *Mytilus* muskuilu bakoitzaren produktu anplifikatuaren urtze-tenperatura (T_m) adierazten zuen. Espezie bakoitzaren T_m heina honela kalkulatu zen: T_m-aren batez besteko balioa (y) ± di aldiz desbideratze estandarra (T_m = y ± 2SD). Metodo honen efizientzia eta errendimendua honako metrika hauek erabiliz ebaluatu zen: sentikortasuna, espezifikotasuna, sendotasuna eta zehaztasuna. Sentikortasuna, honela kalkulatu zen: era egokian identifikatu ziren espezie jakin bateko indibiduo kopurua, zati espezie horren indibiduo kopuru osoa. Espezifikotasuna honela

kalkulatu zen: era egokian baztertu ziren espezie jakin bateko indibiduo kopurua, zati espezie horretakoak ez ziren indibiduo kopuru osoa. Sendotasuna, bi *Master Mix* ezberdin eta hiru termoziklagailu ezberdin erabiliz ebaluatu zen. Zehaztasuna, errepikagarritasunarekin eta erreproduzigarritasunarekin lotua, aldatu gabeko baldintzetan egindako neurketa errepikatuek emaitza berberak erakusten zituzten kasuak aztertuz neurtu zen. Errepikagarritasuna honela kalkulatu zen: laborategiko analista berak, ekipo bera erabiliz eta lagin positibo bera 10 aldiz neurtu ondoren, lortutako benetako emaitza positiboen kopurua zenbatuz. Erreproduzigarritasuna honela kalkulatu zen: laborategiko bi analista ezberdinek, lagin positibo bera 10 aldiz neurtu ondoren, lortutako benetako emaitza positiboen kopurua zenbatuz (ISO/20813, 2019).

3. Emaitzak eta eztabaida

3.1. *SYBR-Green* bidezko denbora errealeko PCR metodoaren garapena, anplifikatutako produktuen disoziazio-kurben analisiarekin

Denbora errealeko PCR produktuen disoziazio-kurben analisia, Dias et al. (2008) ikerketan deskribatutako hasle unibertsalak erabiliz eta muskuiluen proteina itsaskorrak kodetzen dituen genea anplifikatuz (Inoue et al., 1995), arrakastaz erabili da Europan merkaturatzen diren *Mytilus* espezie garrantzitsuenak identifikatzeko. Proteina itsaskorren gene nuklear hau askotan erabili izan da *Mytilus* generoko espezieak identifikatzeko; hala nola, PCR arrunta erabiliz, anplifikatuak AFLP (Inoue et al., 1995) edo RFLP (Santaclara et al., 2006) bidez aztertuz, edota denbora errealeko PCR teknikak erabiliz, *TaqMan*^{TM} zunden bidez (Dias et al., 2008) edo HRM bidez (Jilberto et al., 2017). Hortaz, markatzaile hau *Mytilus* generoko espezieak era azkar eta fidagarri batean identifikatzeko erabiliena da. Markatzaile bakarra erabiltzeak (bat baino gehiago erabili ordez) bere mugak ere baditu. Izan ere, markatzaile bakar hau ez da gai introgresioa detektatzeko, ezta hego hemisferioko *M. chilensis* muskuiluak Australiako eta Zeelanda Berriko *M. galloprovincialis* muskuiluetatik bereizteko ere. Muga horiek gorabehera, eta kontuan hartuta gure helburua Europan merkaturatzen diren muskuilu produktuak azkar

identifikatzea dela, markatzaile bakar baten erabilera nahiko egokia da (Larrain et al., 2019; Araneda et al., 2021).

Ikerketa honetan lortutako PCR produktuen disoziazio-kurbek, aztertutako espezie bakoitzaren T_m heinan piko espezifiko bat erakutsi zuten. Aldiz, *M. galloprovincialis* x *M. edulis* hibridoen kasuan, espezie bakoitzaren T_m-arekin lotura zuten bi piko ikusi ziren (**1.1 irudia**). Aztertutako espezie bakoitzarentzat T_m balio konkretuak lortu ziren, 89 lagin *M. galloprovincialis* (T_m=78.85 °C ± 0.080), 26 lagin *M. edulis* (T_m=80.49 °C ± 0.12), 24 lagin *M. chilensis* (T_m=78.35 °C ± 0.11) eta 7 lagin *M. trossulus* (T_m=79.17 °C ± 0.076) aztertu ostean. Metodoak % 100eko sentikortasuna agertu zuen; izan ere, PCR-RFLP Me15/16 *Acil* metodo konbentzionala erabiliz lortutako emaitzekin alderatuz (Santaclara et al., 2006), lagin guztiak (n = 174) ondo identifikatuta zeuden (**1.2 irudia**). Espezifikotasun arrakastatsua ere lortu zen, *Mytilus* generokoak ez ziren 36 indibiduoak era egokian anplifikatu ez zirelako (datuak ez dira ageri).



1.1 irudia. Espezie bakoitzarentzat lortutako disoziazio-kurbak. Fluoreszentziaren balio logaritmikoak tenperaturarekiko duten aldaketa erakusten dute. Piko bakoitzak *Mytilus* muskuilu bakoitzaren produktu anplifikatuaren T_m-a adierazten du. Grafika hau A *Master Mix*-a eta *LightCycler® 480 Instrument II* termoziklagailua erabiliz lortu zen. Hibridoa *M. galloprovincialis* x *M. edulis*-ri dagokio.



1.2 irudia. Espezie bakoitzarentzat lortutako T_m balioak (n = 146). *M. galloprovincialis* (n=89): 78.85 °C ± 0.080 | *M. edulis* (n=26): 80.49 °C ± 0.12 | *M. chilensis* (n=24): 78.35 °C ± 0.13 | *M. trossulus* (n=7): 79.24 °C ± 0.086. T_m heina bakoitza honela kalkulatu zen: T_m-aren batez besteko balioa (y) ± di aldiz desbideratze estandarra (T_m = y ± 2SD). Grafika hau A *Master Mix*-a eta *LightCycler® 480 Instrument II* termoziklagailua erabiliz lortu zen.

Denbora errealeko PCRaren bitartez lortutako produktuen disoziazio-kurbaren analisia, mikroorganismoak (Winder et al., 2011), ugaztunak (Berry and Sarre, 2007), arrainak (Castigliego et al., 2015), intsektuak (Barcenas et al., 2005; Yu et al., 2005) edota onddoak (Hsu et al., 2003) identifikatzeko tresna erabilgarria dela frogatu dute zenbait ikerketek. Lan honetan, *Mytilus* espezieak identifikatzeko tresna azkar eta errentagarri bat garatu dugu, denbora errealeko PCR produktuen urtze tenperaturaren araberakoa. Bi pausutan egiten diren PCR konbentzionaletan oinarritutako teknikak bibalbio hauek identifikatzeko erabili izan dira; PCR produktuak AFLP teknikaren (Inoue et al., 1995) edo RFLP teknikaren (Santaclara et al., 2006) bidez aztertuz. Ondoren, pausu bakarreko denbora errealeko PCR teknikak garatu dira, eta horrek, analisi denbora aurreztea ahalbidetu dute. Denbora errealeko analisi hauetan *TaqMan™* zundak (Dias et al., 2008) erabili ordez, lan honetan proposatutako *SYBR-Green* koloratzailea erabiltzen baldin bada, analisia askoz merkeagoa da.

Anplifikatutako DNA produktuen disoziazio-kurben analisiak, HRM analisiaren oinarrizko printzipioak partekatzen ditu. HRM analisia aplikazio nahiko berria da, eta arrakastaz erabili da *Mytilus* espezieen identifikaziorako (Jilberto et al., 2017). HRM analisirako erabiltzen diren tindatzaileak (adib. *EvaGreen*® eta *SensiFast*^{TM}), *SYBR-Green* tindatzailea ez bezala, kate bikoitzeko DNA guztiz bete arte lotzen dira, eta hortaz, nukleotido bakarreko polimorfismoak bezalako aldaketa txikiak identifikatzea ahalbidetzen du. Hala ere, HRM analisiak desabantaila bat du; metodo honek *software* berezia behar du dentsitate handiko fluoreszentzia datuak batu ahal izateko, aldiz, lan honetan proposatutako teknika denbora errealeko edozein tekmoziklagailu erabiliz aplikatu daiteke (Herrmann et al., 2007). Ikerketa honetan lortutako emaitzek argi utzi dute Europan merkaturatzen diren *Mytilus* espezie nagusiak modu eraginkorrean bereizi daitezkeela, HRM metodoa erabili gabe. Lehenik eta behin, *M. galloprovincialis* eta *M. edulis* espezieak zehaztasun handiz desberdindu genituen, izan ere, anplifikatutako DNA zatien GC edukia, luzera eta sekuentzia bera, disoziazio-kurba espezifikoak sortu zituen espezie bakoitzerako (**1.1 irudia**). Bigarrenik, anplifikatutako *M. galloprovincialis* eta *M. chilensis* espezieen DNA zatiak base bakarrean (G/T) (Jilberto et al., 2017) desberdindu arren, bereizi ahal izan genituen, izan ere, PCR produktua hain laburra zenez (126 bp) purina bat pirimidina batekin ordezkatzeak eragin handia izan zuen urtze tenperaturan. Azkenik, *M. galloprovincialis* eta *M. trossulus* espezieen artean ezberdintasunak ikusi genituen arren, haien T_m balioak lar antzekoak ziren elikagai prozesatuen espezie bereizketa zuzena bermatzeko. Espezie batzuen arteko T_m balioen aldea txikia izan daitezkeenez, identifikazio zuzena bermatzeko, analisi bakoitzean kontrol positibo moduan espezie bakoitzaren erreferentziazko DNA sartzea gomendatzen da.

Metodo honen sendotasuna bi *Master Mix* ezberdin erabiliz ebaluatu zen. *LightCycler® 480 Instrument II* termoziklatzailea erabiliz, A *Master Mix*-a B *Master Mix*-a baino egokiagoa zela frogatu zen. Izan ere, T_m balioen arteko diferentzia (hau da, lortutako T_m altuenaren eta baxuenaren arteko diferentzia) handiagoa zen A *Master Mix*-aren kasuan (2,15eko diferentzia) B *Master Mix*-aren kasuan baino (1,67ko diferentzia) (**1.1 taula**). Behin A *Master Mix*-a aukeratuta, denbora errealeko termoziklagailu

ezberdinak testatu ziren. Emaitzen arabera, *M galloprovincialis*, *M. edulis* eta *M. chilensis* espezieak era egokian identifika daitezke termoziklatzaile ezberdinak erabiliz (**1.2 taula**). Oztopo bakar bat antzeman zen; *Step One™* plataformaren bidez *M. trossulus* espeziearen identifikazioa ez zen era egokian ebatzi. Muga hau, termoziklagailu bakoitzarentzat fabrikatzaileak gomendatutako *Master Mix*-a erabiliz konpondu daiteke. Laburbilduz, lan honetan garatutako denbora errealeko metodoa plataforma ezberdinetan inplementa daiteke; eta kasu batzuetan, metodoaren erabilpena optimizatzeko, beste *Master Mix* bat aukeratzea bezalako aldaketa txiki batzuk egin beharko dira, antzeko lanetan deskribatu den moduan (Graziano et al., 2017).

1.1 taula. *Mytilus* espezieak identifikatzeko denbora errealeko PCR metodoaren sendotasuna bi *Mastex Mix* ezberdin erabiliz.

Espeziea	**A *Master Mix***		**B *Master Mix***	
	T_m (Batez bestekoa)	**SD**	**T_m (Batez bestekoa)**	**SD**
M. galloprovincialis	78.85	0.08	78.09	0.01
M. edulis	80.50	0.11	79.31	0.15
M. trossulus	79.17	0.07	78.01	0.03
M. chilensis	78.35	0.10	77.64	0.01

PCR guztiak *LightCycler® 480 Instrument II* termoziklagailua erabiliz burutu ziren. T_m balio bakoitza lagin bera lau aldiz neurtuz lortu ziren, eta ondoren espezie bereko T_m balioen batezbestekoa kalkulatu zen. SD: desbideratze estandarra.

1.2 taula. *Mytilus* espezieak identifikatzeko denbora errealeko PCR metodoaren sendotasuna hiru termoziklagailu ezberdin erabiliz.

Espeziea	***LightCycler® 480 Instrument II***		***CFX96 Touch DeepWell™***		***Step One™***	
	T_m (Batez bestekoa)	**SD**	**T_m (Batez bestekoa)**	**SD**	**T_m (Batez Bestekoa)**	**SD**
M. galloprovincialis	78.86	0.08	77.86	0.07	78.20*	0.355
M. edulis	80.50	0.11	79.44	0.08	79.20	0.354
M. trossulus	79.24	0.07	78.18	0.02	78.20*	0.355
M. chilensis	78.36	0.10	77.38	0.04	76.94	0.005

PCR erreakzio guztiak A *Master Mix*-a erabiliz burutu ziren. T_m balio bakoitza lagin bera lau aldiz neurtuz lortu ziren, eta ondoren espezie bereko T_m balioen batezbestekoa kalkulatu zen. SD: desbideratze estandarra.* Ondo identifikatu ez direnak.

Azkenik, metodo honen zehaztasuna ere aztertu zen. Errepikagarritasuna, *M. galloprovincialis* muskuiluaren erreferentziazko lagin bera 10 aldiz aztertu ondoren kalkulatu zen. Lagin guztiak zuzen esleitu zitzaizkion espezie honi. Erreproduzigarritasuna, bi analista ezberdinek lagin bera 10 aldiz aztertu ondoren kalkulatu zen. Era berean, lagin guztiak behar bezala identifikatu ziren % 100eko tasarekin. Zehaztasun balio hauek, aurretiaz Jilberto et al. (2017) HRM bidez *Mytilus* espezieen identifikaziorako egindako analisietan lortutako balioen antzekoak dira.

3.2. Kontserbako muskuilu produktuen analisia

Ikerketa honen helburu nagusia, Europan merkaturatzen diren *Mytilus* generoko itsas produktuen espezie nagusiak identifikatzeko metodo azkar eta zehatz bat garatzea da. Hauen artean kontserba muskuiluak daude, zeinek normalean anplifikazioa inhibi dezaketen osagai gehigarriak dituzten, metodoaren efizientzian eraginez. Gainera, kontserben esterilizazio-prozesuak DNAren zatiketa eragiten du, 200 bp edo gutxiagoko zatiak sortuz (Pardo and Pérez-Villareal, 2004; Lopez and Pardo, 2005; Chapela et al., 2007). Beraz, garatutako denbora errealeko metodoaren erabilera balioztatzeko, ezinbestekoa da honelako laginak analizatzea. Lan honetan aztertu den DNA zatiaren tamaina aski txikia da kontserben analisia era egokian burutu ahal izateko (Santaclara et al., 2006; Dias et al., 2008; Jilberto et al., 2017).

Aurretiaz, ikerketa gutxi batzuk baino ez dituzte supermerkatu eta denda lokaletan erositako produktu prozesatuak aztertu (Santaclara et al., 2006; Fernández-Tajes et al., 2011). Gure kasuan, marka eta saltsa desberdinetako 16 muskuilu produktu erosi genituen tokiko merkatuetan, Espainian saltzen diren produktu mota gehienak barne hartuz (**1.3 taula**). Lagin guztiak era egokian anplifikatu ziren denbora errealeko PCRa erabiliz, eta ondoren, DNA produktuen disoziazio-kurbak aztertuz identifikatu ziren. Kasu guztietan, lortutako T_m balioak *M. galloprovincialis* espeziearen heinaren barruan zeuden. Lortutako emaitzek, metodo hau prozesatutako *Mytilus* generoko muskuilu produktuen espezie identifikaziorako egokia dela balioztatu dute, marka eta erabilitako saltsa edozein izanda ere.

Europar batasuneko etiketatze araudiak, itsas produktuek espeziearen izen zientifiko osoa agertu behar dutela dio, hau da, generoa eta espeziea, latinezko nomenklatura binomiala erabiliz (EU, 2013b). Araudi honi jarraituz, aztertutako muskuilu produktu guztiak behar bezala etiketatuta zeudela frogatu genuen; *M. galloprovincialis* izen zientifikoa agertzen zuten eta hortaz, ez zen iruzurrik antzeman Espainiako merkatuan. Espainia, Txiletik datozen muskuilu izoztu edo prozesatuen inportatzaile nagusia da, kontserba industriarako lehengai gisa erabiltzen dituelako (FAO, 2019). Hortaz, testuinguru honetan, bai muskuiluen espeziea zein jatorri geografikoa egiaztatzeko autentifikazio tresnak garatzea ezinbestekoa da, tokiko industria eta azken kontsumitzailea babesteko.

1.3 taula. *Mytilus* espezieak identifikatzeko denbora errealeko PCR metodoaren emaitzak 16 muskuilu kontserba aztertu ostean.

Laginak	Muskuilu kontserba mota	T_m (Batez bestekoa)	SD	Identifikatutako *Mytilus* espeziea
C01	Eskabetxean	78.79	0.080	*M. galloprovincialis*
C02	Eskabetxean eta oliba oliotan (1. marka)	78.66	0.050	*M. galloprovincialis*
C03	Eskabetxean eta oliba oliotan (2. marka)	78.83	0.030	*M. galloprovincialis*
C04	Eskabetxean eta oliba oliotan (3. marka)	78.65	0.078	*M. galloprovincialis*
C05	Eskabetxean eta oliba oliotan (4. marka)	78.69	0.080	*M. galloprovincialis*
C06	Eskabetxean algekin eta oliba oliotan	78.68	0.055	*M. galloprovincialis*
C07	Eskabetxean frijituak eta oliba oliotan (1. marka)	78.66	0.081	*M. galloprovincialis*
C08	Eskabetxean frijituak eta oliba oliotan (2. marka)	78.71	0.050	*M. galloprovincialis*
C09	Eskabetxean frijituak eta oliba oliotan (3. marka)	78.70	0.026	*M. galloprovincialis*
C10	“Cabrales” gazta saltsan frijituak	78.74	0.070	*M. galloprovincialis*
C11	“Albariño” ardo saltsan frijituak	78.74	0.010	*M. galloprovincialis*
C12	Baratxuriarekin	78.76	0.061	*M. galloprovincialis*
C13	Oliba olioan frijituak	78.67	0.090	*M. galloprovincialis*
C14	Piperbeltzarekin	78.71	0.049	*M. galloprovincialis*
C15	Eskabetxean piperrautsarekin	78.68	0.071	*M. galloprovincialis*
C16	Ur gazitan	78.68	0.066	*M. galloprovincialis*

PCR guztiak A *Master Mix*-a eta *LightCycler® 480 Instrument II* termoziklagailua erabiliz burutu ziren. T_m balio bakoitza lagin bera lau aldiz neurtuz lortu ziren, eta ondoren espezie bereko T_m balioen batezbestekoa kalkulatu zen. SD: desbideratze estandarra.

4. Ondorioak

Lan honetan deskribaturiko *SYBR-Green* bidezko denbora errealeko PCR saiakuntza azkarrak, anplifikatutako produktuen disoziazio-kurben analisiarekin, Europan merkaturatzen diren *Mytilus* espezie garrantzitsuenen (*M. galloprovincialis*, *M. edulis* eta *M. chilensis*) identifikazioa ahalbidetzen du, % 100eko sentikortasun eta espezifikotasuna lortuz. Gainera, metodo hau muskuilu fresko, izoztu zein kontserba produktuen espeziea era egokian identifikatzeko erabili daitekeela frogatu da, ohiko termoziklagailu ezberdinetan eta *software* berezien beharrizanik gabe erabil daitekeena. Hortaz, kapitulu honetan deskribaturiko metodologia muskuilu espeziearen autentifikaziorako erabilgarria da eta gainera, erraz erabil daiteke elikagaien segurtasuna eta identitatea bermatzen duten kontrol laborategietan, ohiko analisi azkar gisa.

Itsas produktuen trazabilitatea eta etiketen gardentasuna bermatzeko, eta kontsumitzaileen konfiantza areagotzeko, DNAren erabileran oinarritzen diren teknika hauen potentziala aztertzea ezinbestekoa da, ez bakarrik espeziearen identifikaziorako, baizik eta jatorri geografikoa egiaztatzeko ere.

CHAPTER 2

Population structure and geographic origin assignment of *Mytilus galloprovincialis* mussels using SNPs

Published as:

del Rio-Lavín, A., Díaz-Arce, N., Larraín, M. A., Araneda, C., Rodríguez-Ezpeleta, N., Jiménez, E., and Pardo, M. A. (2022). Population structure and geographic origin assignment of *Mytilus galloprovincialis* mussels using SNPs. *Aquaculture*, 550. https://doi.org/10.1016/j.aquaculture.2021.737836

All the Supplementary Information of this manuscript can be found in **Appendix A**.

Laburpena

Arrain eta itsaskien trazabilitatea bermatzea berebiziko garrantzia du mundu osoko kontrol agintari eta itsas-industriarentzat, haien helburua iruzurra saihestea, itsas baliabideak babestea eta kontsumitzaileen segurtasuna mantentzea delako. Markatzaile genetikoek, indibiduo bat bere jatorrizko populazio genetiko edo ebolutiboari esleitzeko gaitasuna dute, eta hortaz, itsas produktuen jatorri geografikoa arakatzeko erabil daitezke. Kapitulu honetan, RAD-seq teknikaren bidez, muskuiluen genoman zehar sakabanatutako milaka SNP markatzaile identifikatu dira, eta hauek erabiliz, *M. galloprovincialis* bibalbioen populazio egitura argitu da, bere jatorrizko banaketa eremuan zehar (Atlantikoan eta Mediterraneoan) eta inbaditu berri duen eremuan (Ozeano Bareko hego-ekialdean) zehar. Gainera, aurkitu berri diren markatzaile genetiko hauen jatorria esleitzeko ahalmena aztertu da. Emaitzek Atlantikoko eta Mediterraneoko *M. galloprovincialis* populazioak nabarmen bereizten direla erakutsi dute. Aldi berean, nahiz eta antzinako populazio beretik etorri, Mediterraneoko muskuilu natiboen eta sartu berri diren Ozeano Bareko hego-ekialdeko muskuiluen artean ezberdintasun esanguratsuak daudela ikusi da. Gainera, ahalmen diskriminatzaile handiena agertu duten 10-25 SNP erabiliz, testatutako indibiduoen % 90-100a Atlantikoko edo Mediterraneoko/Hego-ekialdeko jatorri eremuetara era egokian esleitu dira. Lan honetan, markatzaile genetikoak erabiliz jatorria egiaztatzeko tresna analitiko bat garatzea posiblea dela frogatu da; akuikultura sektorearen kudeaketan, itsas produktuen trazabilitatean edota elikagaien segurtasunean erabilera izan dezakeena.

1. Sarrera

Arrantza eta akuikultura sektoreek berebiziko garrantzia dute munduko elikagai hornikuntzan eta enpleguaren garapenean. Merkatuen globalizazioa eta itsas produktuen eskari hazkuntza dela medio, hornidura kateak gero eta konplexuagoak bilakatzen ari dira, trazabilitate ahaleginak erronka handia bihurtuz. Testuinguru honetan, arrain eta itsaskien trazabilitatea bermatzeko tresna analitikoen garapena ezinbestekoa da. Itsas produktuen jatorri geografikoa egiaztatzea funtsezkoa da iruzurra saihesteko, arrantzaren eta akuikulturaren kudeaketa eraginkor eta jasangarria bermatzeko, eta elikagaien segurtasunari buruzko arauak betetzen direla ziurtatzeko. Trazabilitate tresna hauek eskura izatea garrantzitsua da bai kontrol-agintarientzat, baita haien produktuak babestu eta kontsumitzaileen konfiantza sustatu nahi duten ekoizleentzat ere.

Europar batasunean, Kontseiluaren 1379/2013 (EE) Erregelamenduak, kontseiluaren 1184/2006 (EE) eta 1224/2009 (EE) Erregelamenduak aldatzen dituena, eta Kontseiluaren 104/2000 (EE) Erregelamendua indargabetzen duena, arrantza eta akuikulturako produktuen etiketek adierazi beharrekoa arautzen du. Lege honen arabera, espeziaren merkataritza-izena eta izen zientifikoa, ekoizpen metodoa eta produktua harrapatu edo hazi den jatorri-eremua adieraztea nahitaezkoa da (EU, 2013b). Jatorria bermatzea bereziki garrantzitsua da muskuiluen kasuan, nazioarteko merkataritzan duten garrantziagatik. Muskuiluak prozesatzen direnean haien kontserbatze-denbora luzatu egiten da, eta horrek, itsas produktu honek ekoizleengandik kontsumitzaileengana egiten duten distantzia handitzea ahalbidetzen du, trazabilitatea nabarmenki zailduz.

Bibalbio hau proteina iturri garrantzitsua da eta mundu osoan aurki daiteke produktu fresko, izoztu zein prozesatu gisa. Munduko muskuilu ekoizpenak gora egin du azken hamarkadan; 2018an, konkretuki, 2,11 milioi tona ekoitzi ziren 4,519 milioi dolarreko balioa lortuz (FAO, 2020a). Akuikultura ekoizpen honetarako erabiltzen diren muskuilu haziak ingurunetik jasotzen dira, eta hortaz, populazioak naturaltzat har daitezke.

Europan zehar hiru *Mytilus* espezie bizi dira: *M. galloprovincialis*, *M. edulis* and *M. trossulus.* EBn muskuiluek akuikultura-ekoizpenaren bolumen osoaren % 34a hartzen dute *M. galloprovincialis* eta *M. edulis* izanik gehien ekoizten eta kontsumitzen diren espezieak (EUMOFA, 2019). Espainia EBeko *M. galloprovincialis* ekoizle nagusia da, urtean 200.000 tona inguru haziz (OESA, 2017; EUMOFA, 2022a). Muskuilu horien % 97a baino gehiago Galizian ekoizten da, Iberiar penintsularen ipar-mendebaldeko kostaldean.

M. galloprovincialis muskuiluaren jatorrizko banaketa-eremua Mediterraneo itsasoa, Itsaso Beltza eta Ozeano Atlantikoko ekialdeko kosta (Irlandatik Marokoraino) da (Gosling, 1992). Hala ere, gizakiak eragindako ekintzengatik, bai istripuz (itsas garraioen bidez) zein berariaz (akuikultura ekoizpenerako), eta ingurumen-baldintza desberdinetara bizkor egokitzeko duen gaitasunagatik, mundu osoan zehar hedatu da (Westfall and Gardner, 2010; Gardner et al., 2016; Larrain et al., 2018; Zardi et al., 2018; Zbawicka et al., 2018b). Ipar hemisferioko *M. galloprovincialis* muskuiluak beste herrialde bat inbaditzeak, ondorio larriak eragin ahal ditu bertako muskuilu espezie natiboen ekoizpenean. Zenbait ikerketek, *Mytilus* espezie honen presentzia aitortu dute Txile erdialdeko kostaldean (BíoBio eskualdean), inbasio iturria duela gutxiko jarduera antropogenikoak (hala nola, itsas garraioa eta akuikultura) direla aditzera emanez (Toro et al., 2005; Westfall and Gardner, 2010; Tarifeño et al., 2012; Astorga et al., 2015; Larrain et al., 2018). Hala, espezie honen jatorri geografikoa identifikatzea funtsezkoa inbasioen aurreko kudeaketa estrategia egokiak garatu eta ezarri ahal izateko. Honek, gertatutako inbasioa arin identifikatzea eta bertako espezie natiboak babestea ahalbidetuko luke.

SNPak bezalako markatzaile genetikoak arrain eta itsaskien jatorria arakatzeko potentzial handia dutela frogatu da (Martinsohn and Ogden, 2009). Jatorri geografikoaren identifikazio genetikoa, indibiduo bat bere jatorrizko populazio genetiko edo ebolutiboari esleitzeko gaitasunean oinarritzen da, eta horretarako, bere jatorrizko populazioa gainerako populazioetatik aski desberdina izan behar du. Hortaz, jatorriaren esleipenerako erabiliko diren SNP markatzaileak populazioen arteko bereizketa mailaren arabera aukeratuko dira (Ogden and Linacre, 2015). *Mytilus* muskuiluak erabiliz, SNP

markatzaileetan oinarritutako zenbait ikerketa burutu dira, bai genero honetako espezieak bereizteko bai espezie bereko populazioak bereizteko ere. SNP hauen aurkikuntzarako, datu-base publikoetan eskuragarri dauden sekuentziak (Zbawicka et al., 2012; Fraisse et al., 2015; Wenne, 2018), edo berrikiago, RAD-seq teknika (Araneda et al., 2016) erabili dira. Beste markatzaile batzuekin alderatuta, SNPek abantaila ugari dituzte; batetik, genomaren estaldura handiagoa lortzen da, bai eskualde neutroetan zein hautespen-eremuetan zehar (Morin et al., 2004; Helyar et al., 2011); eta bestetik, oso zatituta dagoen DNA aztertzeko erabil daitezke, prozesatutako itsas produktuen genotipazio azkarra eta eraginkorra ahalbidetuz (Scarano and Rao, 2014).

Ikerketa gutxi batzuk baino ez dute *M. galloprovincialis* muskuiluen dibertsitate genetikoa eta populazio egitura sakonki aztertu bere jatorrizko banaketa-eremuan zehar. SNPak erabiliz, Paterno et al. (2019)-ek Mediterraneo itsasoko eta Itsaso Beltzeko *M. galloprovincialis* populazioen egitura genetikoa aztertu zuten. Ikerketa honetan bi itsasoetako muskuilu populazioak nabarmen bereizten zirela ikusi zen; eta aldiz, mendebaldeko eta ekialdeko Mediterraneoko indibiduoen artean ez zen desberdintasunik aurkitu. Hala ere, espezie honen jatorrizko banaketa-eremu osoa aztertzeko, Atlantikoko indibiduoak aztertzea falta izan zitzaion ikerketa honi. Iberiar Penintsulako kostaldean, zenbait ikerketek deskribatu dute *M. galloprovincialis* muskuiluen populazio egitura; alozimak (Quesada et al., 1995b), markatzaile mitokondrialak (Quesada et al., 1995a; Kijewski et al., 2011) eta mikrosateliteak (Diz and Presa, 2008) erabiliz. Ikerketa horiek, Iberiar Penintsulan bi *M. galloprovincialis* populazio nagusi bereizten direla erakutsi dute, Atlantikokoa eta Mediterraneokoa. Hala ere, erabilitako markatzaile mota eta kopurua mugatua da, eta jatorriaren esleipen probabilitatea kalkulatzea falta zaie.

Lan honetan, hazitako *M. galloprovincialis* muskuiluen populazio genetikoa aztertuko dugu, bederatzi jatorri ezberdinetatik batutako laginak erabiliz eta RAD-seq bidez lortutako milaka SNP markatzaileetan oinarrituz. Gure helburuak honako hauek dira: (1) *M. galloprovincialis* muskuiluen populazio egitura zehaztea, bere jatorrizko banaketa-eremuan (Atlantikoan eta Mediterraneoan) eta inbaditu berri duen eremuan

(Ozeano Bareko hego-ekialdean); eta (2) SNPetan oinarritutako jatorria geografikoa esleitzeko tresna analitiko bat garatzea eta ebaluatzea.

2. Materials and Methods

2.1. Sample collection, DNA extraction and RAD-seq libraries preparation and sequencing

A total of 222 adult samples of *Mytilus galloprovincialis* (5-9 cm) were collected from nine different mussel farms from autumn 2018 to winter 2019 (**Table 2.1**, **Figure 2.1**). From each mussel, a piece of mantle border tissue was excised and immediately stored in RNAlater® (Sigma Aldrich, Burlington, MA, USA). Genomic DNA extraction was performed using the Wizard® Genomic DNA Purification Kit (Promega, Madison, WI, USA), starting from 50 mg of tissue and following manufacturer's instructions. Extracted DNA was eluted in sterile Milli-Q water (Millipore, Burlington, MA, USA) and its concentration was determined by means of the Quant-iT dsDNA HS assay kit using a Qubit® 1.0 Fluorometer (Life Technologies, Carlsbad, CA, USA). DNA integrity was assessed by electrophoresis on agarose gel 0.8% (w/v). Species identification was performed by a real-time PCR assay targeting the polyphenolic adhesive protein gene using primers previously described by Dias et al. (2008), with a SYBR-Green post-PCR melting curve analysis (del Rio-Lavín et al., 2021). This methodology shows specific peaks in dissociation curves with unique T_m values for each species.

RAD-seq libraries were prepared following the method described by Etter et al. (2011). Briefly, 500 ng of starting DNA was digested with the *SbfI* restriction enzyme (Thermo Fisher Scientific, Waltham, MA, USA) and ligated to modified Illumina P1 adapters containing 5 bp unique barcodes. Pools of DNA from 32 individuals were sheared using the Covaris® M220 Focused-ultrasonicator™ Instrument (Life Technologies, Carlsbad, CA, USA) and size selected to 300-500 bp by AMPure XP Beads (Beckman Coulter, Brea, CA, USA) (Bronner et al., 2014). After Illumina P2 adaptor ligation, each library was amplified using 12 PCR cycles. Each pool was paired-end sequenced (125 bp) on an Illumina HiSeq2500 (Illumina Inc., San Diego, CA, USA).

Table 2.1. Mussel samples used for population genetic analyses. MED = Mediterranean area; ATL = Atlantic area; SEP = South-eastern Pacific area.

Area	Country/Region	Sampling point	Code	Latitude	Longitude	Nº indiv.	Nº indiv. genotyped	Nº indiv. training set	Nº indiv. holdout set
ATL	Spain / Basque country	Mutriku	MUES	43º 18'40.2'' N	2º 22'35.2'' W	25	20	10	10
	Spain / Basque country	Mendexa	MEES	43º21'20.2'' N	2º 26'53.4'' W	25	22	9	13
	Spain / Galicia	Ría de Betanzos-Sada	SGES	43º 23' 45.0'' N	8º 17' 40.0'' W	23	10	4	6
	Spain / Galicia	Ría de Arousa	AGES	42º 29' 36.0'' N	8º 55' 51.0'' W	24	18	10	8
	Portugal / Algarve	Porto da Baleeira	PBPT	37°00'41.8" N	8°55'48.7" W	25	24	14	10
						122	**94**	**47**	**47**
MED	Spain/ Catalonia	Delta del Ebro	DEES	40°33'16.3" N	0°32'27.8" E	25	22	10 (9)	12 (13)
	Tunisia / Bizerte	Bizerte lagoon	LBTN	37°11'48.0" N	9°51'23.0" E	25	10	4 (7)	6 (3)
						50	**32**	**14 (16)**	**18 (16)**
SEP	Chile / Biobío	Coliumo	COCL	36º22'16.4'' S	72º57'25.2'' W	25	18	10 (9)	8 (9)
	Chile / Biobío	Caleta Tumbes	TBCL	36º32'14.0'' S	72º57'32.0'' W	25	23	13 (12)	10 (11)
						50	**41**	**23 (21)**	**18 (20)**
					Dataset 1	**222**	**167**	**84**	**83**
					Dataset 2	**100**	**73**	**37**	**36**



Figure 2.1. Map showing the geographic location where the samples used for this study were collected. See **Table 2.1** for definitions of abbreviations.

2.2. RAD-tag assembly and SNP calling

Raw reads were analysed using Stacks version 2.3b (Catchen et al., 2013). Detailed procedures followed in this study are shown in **Figure S1**. Demultiplexing and quality filtering were performed using the "process_radtags" module, truncate ng all reads to 80 nucleotides to avoid the low-quality bases at the end of the reads. PCR duplicates were removed by applying the "clone_filter" module to the reads whose forward and reverse pairs passed filtering. Only samples with at least 500,000 quality passing forward reads were kept (**Table S2.1**). Stacks per individual were *de novo* assembled using the "ustacks" module with a minimum depth coverage to create a stack (m) of three and a maximum nucleotide mismatches (M) allowed between stacks of four. Only samples with between 6000 and 25000 RAD loci and a minimum coverage of 10X were kept. A catalog of RAD loci was generated using the "cstacks" module, allowing a maximum number of mismatches between sample tags (n) of five and using a population map with the nine mussel production points. Stacks parameters (m, M and n) were selected following the method of *de novo* parameter optimization based on Paris et al. (2017). Matches of individual RAD loci to the catalog were searched using the "sstacks" module, data were stored by locus and SNPs were called using information from paired-end reads using the "tsv2bam" and "gstacks" modules.

From the generated catalog, genotype tables including all individuals (Dataset 1) or only the Mediterranean and South-eastern Pacific individuals (Dataset 2) were generated as follows. SNPs present in RAD loci found in at least 70% of the individuals across populations were selected and exported to PLINK, Variant Call Format (VCF) and Genepop formats using the "populations" module. Only SNPs located on the forward reads were considered. Using PLINK version 1.09b (Purcell et al., 2007), SNPs with a Minimum Allele Frequency (MAF) lower than 0.05, a genotyping rate lower than 0.9 and failing the Hardy-Weinberg equilibrium test at $P<0.05$ in two or more of the sampling points were excluded. Only samples with a genotyping rate above 0.8 were retained. Genotype tables were exported to Structure and Genepop formats using PDGSpider 2.1.1.5 (Lischer and Excoffier, 2012).

2.3. Genetic diversity and population structure analysis

For population structure, the following analyses were performed for each dataset including only the first SNP per tag. Principal Component Analysis (PCA) was performed using the adegenet R package with no previous population assignment of samples (Jombart and Ahmed, 2011). ADMIXTURE (Alexander et al., 2009) was run setting 5000 bootstraps for each K value (number of potential ancestral populations, that ranged from 1 to the number of presumed populations +1). A first ADMIXTURE run was launched for each value of K to check the number of steps necessary to reach the default 0.001 likelihood value during the run. This information was used to set the "-c" parameter (steps to be fulfilled in each bootstrapped run) to assure convergence. The K value with the lowest associated error was identified using ADMIXTURE's cross-validation procedure. Genetic differentiation between sampling areas was analysed through the total and pairwise F_{ST} (fixation index) values with a 95% confidence interval (CI) estimated running 10,000 bootstraps with the R package diveRsity (Keenan et al., 2013). Loci potentially influenced by positive selection in each dataset were identified using the R package pcadapt (Luu et al., 2016). A screeplot representing the percentage of variance explained by each PC was used to choose the number of principal components (K), and SNPs with p-values (adjusted following Benjamini and Hochberg (1995)) below 0.05 were classified as genomic outliers.

2.4. Origin assignment informative loci selection

The selection of the most informative loci for geographic origin assignment was performed based on F_{ST} values calculated by GENEPOP 4.7.3 (Raymond and Rousset, 1995; Rousset, 2008) following Weir and Cockerham, 1984. Considering the genetic clusters obtained in this study, two different assignment analysis were performed in order to match individuals to one of the three ocean areas of interest: (1) Atlantic *vs* Mediterranean/South-eastern Pacific individuals (using Dataset 1) and (2) Mediterranean *vs* South-eastern Pacific individuals (using Dataset 2). Genetic assignment was performed following the "Training, Holdout & Leave-one-out" (THL) method (Anderson, 2010) in order to avoid high-grading bias. Briefly, for each dataset, individuals were randomly divided in two groups (training and holdout) with equally distributed number of samples from each location (**Table 2.1**). Training samples were used to identify the loci with the highest discriminative power to assign samples their areas of origin based on F_{ST} values. Next, using both training and holdout samples as reference, assignment scores for each holdout individual was calculated with Geneclass2 (Piry et al., 2004) using Rannala and Mountain (1997) criterion (0.05 threshold) and following leave-one-out procedure. Assignment power of the most discriminant SNPs was assessed by calculating percentages of correctly and incorrectly assigned holdout individuals to their origin. The assignment rate was calculated using two levels of assignment probability thresholds: 80% and 90%, and samples below these values were considered unassigned.

3. Results

All the 222 mussel samples analysed in this study were identified as *M. galloprovincialis*, all showing the dissociation curve peak corresponding to a melting temperature of 78.856 ± 0.16. Three samples from Galicia and five from the Basque Country, excluded from the analysis, were identified as *M. galloprovincialis* x *M. edulis* hybrids, meaning that hybrids were found in four of the nine production points.

3.1. RAD-tag assembly and SNP calling

The total number of read pairs retained after quality filtering was 288,996,135 (79%), with an average of 1,301,784 reads per individual. After PCR duplicate removal, with an average of 27.6% clones per individual, 201,648,224 were used for SNP identification. The mean number of RAD tags obtained per sample was 13,976. After individual and SNP filtering, the final datasets resulted in 167 samples and 959 SNPs (Dataset 1) and 1,506 SNPs and 73 samples (Dataset 2) (**Table S2.2**).

3.2. Population Structure and Genetic Clustering

PCA and ADMIXTURE analyses showed that mussels from the Atlantic area (Basque Country, Galicia and Algarve) are genetically distinct from those from the Mediterranean Sea (Ebro Delta and Bizerte) and South-eastern Pacific (Biobío) areas (**Figure 2.2A and 2.3A**). ADMIXTURE analysis identified K=2 as the most likely number of ancestral populations whose proportions differentiate two main *M. galloprovincialis* populations within the Iberian coast. Individuals from the Atlantic Ocean were clearly separated from the Mediterranean Sea and South-eastern Pacific populations by the first principal component explaining 5,55% of variance in allele frequency in the PCA analysis. Interestingly, the Mediterranean samples grouped closer to the South-eastern Pacific samples, than to the Atlantic samples. Although originated from the same ancestral populations, samples from Mediterranean and South-eastern Pacific locations have diverged and are genetically differentiated (**Figure 2.2B and 2.3B**).

Total F_{ST} estimations revealed significant differences between the three above mentioned groups. The highest F_{ST} values were obtained between the Atlantic and the other two areas: 0.0959 (95% CI: 0.0882, 0.1043) with respect to the Mediterranean and 0.0723 (95% CI: 0.0660, 0.0795) with respect to the South-eastern Pacific. As expected, a lower value was obtained for Mediterranean with respect to the South-eastern Pacific F_{ST} statistic (0.0134) (95% CI: 0.0070, 0.0207). This genetic differentiation was also reflected in the pairwise F_{ST} estimations between the nine mussel sampling points (**Table 2.2**). Although F_{ST} values between the Easten Pacific COCL location and the Mediterranean populations were not significantly different from zero at 95% CI when

using Dataset 1, a clear and significant genetic differentiation was observed when using the specific dataset developed for these two areas (Dataset 2) (**Table S2.3**). Outlier analyses run by pcadapt detected 40 and 9 SNPs showing clear evidence of positive selection (pvalue<0.05) for Dataset 1 and 2 respectively.



Figure 2.2. Principal Component analysis (PCA) of mussel samples. **(A)** Individuals from all areas (Dataset 1): Atlantic (● MUES |● MEES|● SGES|● AGES |● PBPT), Mediterranean (● DEES|● LBTN) and South-eastern Pacific (● COCL|● TBCL). **(B)** Mediterranean (● DEES|● LBTN) and South-eastern Pacific (● COCL|● TBCL) individuals (Dataset 2). Each point represents one sample and colours denote its sampling site. Ovals represent 95% inertia ellipses.



Figure 2.3. Graphical representation of ADMIXTURE clustering approach, where each bar represents an individual and each colour its inferred membership to each of the two potential ancestral populations (K=2). (A) Dataset 1 including all areas: Atlantic (MUES|MEES|SGES|AGES|PBPT), Mediterranean (DEES|LBTN) and South-eastern Pacific (COCL|TBCL). (B) Dataset 2 including only the Mediterranean (DEES|LBTN) and South-eastern Pacific individuals (COCL|TBCL). See **Figure S2.3** for K=3.

Table 2.2. Pairwise F_{ST} values matrix for all mussel farming points (using Dataset 1): Atlantic (MUES|MEES|SGES|AGES|PBPT), Mediterranean (DEES|LBTN) and Eastern Pacific (COCL|TBCL). Values significantly different from zero at 95% CI are in bold.

	MUES	MEES	SGES	AGES	PBPT	DEES	LBTN	COCL
MEES	-0.0003							
SGES	0.0006	0.0020						
AGES	-0.0018	0.0006	-0.0021					
PBPT	0.0035	0.0020	0.0044	0.0023				
DEES	**0.0934**	**0.1005**	**0.1025**	**0.0935**	**0.1030**			
LBTN	**0.0873**	**0.0966**	**0.1016**	**0.0953**	**0.1020**	0.0047		
COCL	**0.0615**	**0.0664**	**0.0694**	**0.0656**	**0.0711**	0.0127	0.0139	
TBCL	**0.0712**	**0.0781**	**0.0773**	**0.0739**	**0.0823**	**0.0138**	**0.0171**	-0.0017

3.3. Traceability tool development

With the aim of developing a traceability SNP panel with the highest accuracy and lowest number of SNPs, the 100 most discriminant SNPs were selected using half of the individuals (**Table S2.4**). The remaining half, excluded from the SNP selection, were assigned using Geneclass2. The assignment was performed combining both, neutral and outlier loci information; being under positive selection 18 out of 100 SNPs for dataset 1 and 1 out of 100 SNPs for dataset 2 (**Table S2.4**). For Dataset 1, the percentage of correctly assigned samples when using 10 to 25 SNPs ranked based on F_{ST} criterion, resulted in between 90-100% of assignment for Atlantic and Mediterranean/South-eastern Pacific samples (**Figure 2.4A, Figure S2.2)**. For Dataset 2, assignment success to the region of origin using a panel of 75 SNPs ranked according to de F_{ST} value resulted in 87.5% and 90% correct assignment of the Mediterranean and South-eastern Pacific origin samples, respectively (**Figure 2.4B, Figure S2.2).**



Figure 2.4. Origin assignment of individuals following THL method. (Left) Progression of the percentage of correctly, incorrectly and unassigned Atlantic (ATL), Mediterranean (MED) and South-eastern Pacific (SEP) samples as the number of markers (SNPs) increases. (Right) Percentages of samples assigned to their origin using a 25 SNP panel for Dataset 1 (A) and a 75 SNP panel for Dataset 2 (B). Markers were selected and ranked according to their F_{ST} value. The assignment threshold used was 80% in both cases, see **Figure S2.2** for 90% assignment scores.

4. Discussion

4.1. Population structure of *M. galloprovincialis*

The analysis of the *M. galloprovincialis* from nine locations performed here has provided a robust population genetic structure of this species in part of its both native and introduced range. This has allowed the clear differentiation between two mussel lineages within *M. galloprovincialis*, the Atlantic and the Mediterranean, with significant

differences observed between the ancestral Mediterranean native and the more recently introduced mussel in the South-eastern Pacific area.

The genetic differentiation between Atlantic and Mediterranean populations is concordant with previous studies performed along the Iberian Peninsula using allozymes (Quesada et al., 1995b), mitochondrial markers (Quesada et al., 1995a; Kijewski et al., 2011) and microsatellites (Diz and Presa, 2008). These studies place the Iberian phylogeographic break between Almeria and Alicante, which corresponds with the position of the well-defined Almeria-Oran oceanographic front (AOOF). The concordance between these four different marker types strongly supports genetic differentiation between the two Iberian *M. galloprovincialis* populations and proves the temporal stability of this structure, allowing the development of accurate geographic origin verification tools. The differentiation between these two lineages using SNP markers has also being proved when analysing a set of reference Northern hemisphere *M. galloprovincialis* individuals from Oristano (Italy) and Punta Camarinal (Spain) (Larrain et al., 2018; Zbawicka et al., 2018b; Zbawicka et al., 2019; Popovic et al., 2020). The use of thousands of SNP markers throughout the genome, has increased the resolution in population structure revealing high levels of genetic differentiation (F_{ST}=0.0867). Among Atlantic samples, our findings contradict the large proportion of significant pairwise F_{ST} values found when using six microsatellites (Diz and Presa, 2008), since no significant differences were depicted. This discrepancy could be explained by the higher number of genetic markers used in our study, which might provide a better resolution of the genetic differentiation.

We found that Mediterranean samples grouped closer to the South-eastern Pacific samples than to the Atlantic samples, which is explained by a relatively recent human-mediated introduction of Mediterranean *M. galloprovincialis* mussels on the coast of Chile (Westfall and Gardner, 2010; Tarifeño et al., 2012; Larrain et al., 2018). The presence of Mediterranean populations in South America has also recently been described by Lins et al. (2021), being genetically more similar to the Black Sea and South-eastern Mediterranean populations. Nevertheless, although originated from Mediterranean ancestral population, our analyses support significant differentiation

between current Mediterranean and South American populations. This indicates that these populations have diverged over the years and are now genetically differentiated. Interestingly, Larrain et al. (2018) found an F_{ST} value of zero between Mediterranean (from Oristano, Italy) and South-eastern Pacific samples (from BioBío, Chile), potentially due to the fact that this previous study used lower number of SNP markers. The thousands of SNP markers developed here specifically for *M. galloprovincialis* mussels may have uncovered an existing genetic differentiation between these two populations. Within the Mediterranean samples, the complete lack of differentiation found agrees with the genetic structure observed between *M. galloprovincialis* mussels from Western Mediterranean by Paterno et al. (2019), where no differences were found between samples from the Western and Central Mediterranean.

4.2. SNP markers for *M. galloprovincialis* geographical origin assignment

Once the overall picture of *M. galloprovincialis* population structure has been settled, the geographic origin assignment power of SNP markers presented here paves the way for an accurate and cost-effective traceability tool development. Due to the high genetic differentiation observed between Atlantic and Mediterranean *M. galloprovincialis*, our study has shown that a correct assignment between 90-100% can be obtained when using 10 to 25 SNPs. As in our study, small SNP panels with high assignment power have previously shown to be useful for genetic traceability systems of other marine species. Proof of this are the small panels of SNP markers (n = 10–30) that were developed for the traceability of European commercial fish (cod, herring, sole and hake) with 93-100% of correct assignment (Nielsen et al., 2012; Ogden and Linacre, 2015). In this sense, Montes et al. (2017) also detailed the use of a SNPs-based test to determine the provenance of anchovies with an overall assignment percentage of 94.3% of the individuals analysed.

As expected, our SNP traceability panel was less effective distinguishing between mussels from the Mediterranean and South-eastern Pacific areas, which is consistent with the patterns observed in the population structure analysis. A possible explanation could be the insufficient accumulation of genetic differences, either by genetic drift or

adaptation to the local environment between these two populations, due to the relatively recent introduction of the population in the South-eastern Pacific. Nevertheless, the assignment score for the Mediterranean and South-eastern Pacific samples could be improved by increasing the number of samples used for SNP selection.

Previous origin assignment analysis of mussels in South America, where Atlantic and Mediterranean *M. galloprovincialis* samples were used as reference to identify species within *Mytilus* genus, observed lower assignment rates between these two European locations using higher number of SNPs (Larrain et al., 2018; Zbawicka et al., 2018b). Larrain et al. (2018) used a 49-SNP panel to assign the Atlantic and Mediterranean populations with an 86.2% and 93.1% assignment success, respectively, suggesting mixture of individuals between these two European locations. Zbawicka et al. (2018b) used a 51-SNP panel to assign Atlantic and Mediterranean samples with an 89.65% and 96.55% assignment success. In both studies, only two sampling sites were selected around the Iberian Peninsula, having 29 samples each of them. This lower assignment power can be explained by the fact that the SNPs selected for the panels aimed to identify the different *Mytilus* species located in the Southern Hemisphere and not to differentiate lineages within Northern Hemisphere *M. galloprovincialis*. As shown in our study, the use of a specific SNP panel developed precisely for origin assignment of *M. galloprovincialis,* shows a better performance in assigning the geographical origin than using SNPs shared by different species.

In summary, SNP panels represent a promising traceability tool for food authorities due to their easy laboratory transfer, their potential assignment power and their applicability in processed seafood products. However, it is worth mentioning that the spatial resolution of DNA based methods is often limited, since it is not possible to differentiate samples from different farming locations within the same geographical area. In these cases, a multidisciplinary approach combining DNA based techniques with other techniques that might reflect individuals' surroundings, such as isotope or trace element analysis, would improve the resolution determining the geographic location. In addition, the origin assignment markers presented here could also help to determine the source of invasion of this species in non-native areas and to understand the subsequent

impacts in local shellfish production. Consequently, this will allow the development of management strategies to mitigate future invasions, ensuring the conservation of native biodiversity.

Our research supports the possibility of the development of an accurate and cost-effective origin assignment tool based on a reduced panel of SNPs which can be applied to fresh, frozen or processed mussel products. Developing genetic tools to assign seafood to their provenance will protect marine resources, guarantee sustainable aquaculture management, enforce current food safety regulations and prevent commercial fraud.

CHAPTER 3

Stable isotope and trace element analysis for tracing the geographical origin of the Mediterranean mussel (*Mytilus galloprovincialis*) in food authentication

Published as:

del Rio-Lavín, A., Weber, J., Molkentin, J., Jiménez, E., Artetxe-Arrate, I., and Pardo, M. A. (2022). Stable isotope and trace element analysis for tracing the geographical origin of the Mediterranean mussel (*Mytilus galloprovincialis*) in food authentication. *Food Control*, 139. https://doi.org/10.1016/j.foodcont.2022.109069

